

Iriarte Espainiako arku jaurtiketako txapelduna



Kirolak >> 12

Irurtzungo eta Iturmendiko festak, bete betean. Heldu den astean Bakaiku eta Olatzagutia lekukoa hartzeko prest daude



Sakanerria >> 8



Sakanako XIII. haur triatloia bihar goizean Urdiainen >> 11

Sakanaren sareko bisita txartela >> 7

Urte erdian 225 langabe gutxiago >> 9

Haurrak Aralarko aingeruaren aurrera etzi >> 6



Nicolas Arbizu Gabirondo, Iturmendiko historian aditua, eta Mikel Markotegi Ijurko, Ezpilleta elkarteko kidea, Iturmendiko gurutze-bideko gurutze baten ondoan

XVIII. mendekoa eta euskaraz idatzia

>> 15

Palestinarekin elkartasun deialdiak Iturmendin eta Arbizun

>> 6

Ekomartxa Sakanan, Haustura hidraulikoa pedalkada salatzen

>> 3

LAN ESKAINTZA:
BIERRIK FUNDAZIOAK KUDEATZAILE/KOORDINATZAILEA BEHAR DU

Baldintzak:

- Enpresen kudeaketan eta Giza baliabideen kudeaketan esperientzia.
- Euskara maila altua eta euskalgintzan aritua.
- Enpresen Zuzendaritzan eta Komunikazio arloan ikasketak izatea baloratuko da.

bierrik
fundazioa

Bidali zure CVa bierrik@guaixe.net helbidera

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20
ra
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Gorka Senar
Rekalde
ZORIONAK Gorka! 8 urte dagoeneko. Zeinen haundia... Muxu handi bat familiaren partez.



Amaiur Cuadrado
Nicolay
ZORIONAK Amaiur zure guraso eta aiton-amonen partez. 8 urte! Zeinen txapelduna!



Irati Loiarde
ZORIONAK gure etxe-ko sorgintxoari!! 6 urte bete dituzu. Segi beti bezain maitekorra. Muxu handi bat. Etxekoak.



Joseja
ZORIONAK aita!! Betidanik izan dena, betirako izan da-dila. Zaren modukoa izate-egatik, maite zaitugu eta primeran pasa zure egunean!! Familiaren partez.



Maialen eta Mikel
Luzaroan itxaron behar izan dugu, baina azkenean iritsi da zuen eguna eta zuekin batera ospatzeko zorte handia izanen dugu. ZORIONAK BIKOTE eta oso zoriontsu izan zaituzten opa dizuegu.

garilak

18-24

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Aske! Garilaren 18an, ostiralean, 20:00etan Urdiaingo igerilekuan.

Zinema

Ocho apellidos vascos. Garilaren 23an, asteazkenean, 22:00etan Irurtzongo Foru plazan.

Mendi irteerak

Bargagain-finalista. Garilaren 20an, domekan, 8:00etan Altsasuko Mendigoizaleak elkartearen egoitzatik.

Bizikleta irteerak

Ekomartxa: frackingaren kontra eta des-hazkondearen alde. Garilaren 22an, asteartean, Lizarratik Altsasura eta garilaren 23an, asteazkenean, Olatzagutiatik Atarrabiara.

Ekologistak Martxan.

Hitzaldiak

Palestinarekin elkartasuna. Garilaren 24an, ostegunean, 19:30ean Arbizuko Plazan. **Hizlaria: Martxelo Diaz.**

Tailerrak

Komunikazio estrategikoa: produktu eta kanpainak lantzeko irizpide minimoak. Garilaren 18an, ostiralean, 17:00etatik 20:00etara eta garilaren 19an, larunbatean, 10:00etatik 14:00etara Arbizuko Utzugane, Sakanako Garapen Gunean. **Sakantzen sarea. Aurretik izena eman.**

Sakanako Historia. Garilaren 22an eta 23an, asteartea eta asteazkenean, 18:00etatik 20:30era Arbizuko Utzugane, Sakanako Garapen Gunean. **Sakantzen sarea. Aurretik izena eman.**

Bestelakoak

Bisita gidatuak Zamartzeko arkeologi aztarnategira. Garilaren 19an, larunbatean, 11:00etan Uharte Arakilgo Zamartzen.

Altsasu xtreme. Garilaren 19an, larunbatean, 11:00etatik aurrera Altsasun. **AGA.**

Haurren aurkezpena Aralarko aingeruari. Garilaren 20an, igandean, 12:30ean Aralarko santutegian.

Ur festa goxoa. Garilaren 23an, asteazkenean, 21:00etan Etxarri Aranazko igerilekuan eta garilaren 24an, ostegunean, 21:00etatik aurrera Lakuntzako igerilekuan.

Deialdiak

Hipotekek kaltetutakoan Plataforma. Garilaren 18an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure

Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 18an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 20an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Interbentzio sionistaren aurrean, Palestina aurrera! Garilaren 20an, domekan, 20:30ean Iturmendiko plazan. **Askapena eta IGA.**

Sakanako Langabetuen Asanblada. Garilaren 21ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Palestinarekin elkartasuna. Garilaren 24an, ostegunean, 19:00etan Arbizuko San Juan ermita ondoko olibondoan. **Arbizuko Udala.**

objektibo tik



Oihaneko jaunaren faltan, parkekoa:
Euskal mitologian Basajaun dugu. Orritzek etxekotu zuen. Baina parkeko zaindaria ere behar zutela eta lehortutako zuhaitzak bere burua eskaini zuen. Bera da Irurtzongo Gernika plazako zaindaria.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net



Bat ez, bi:

Hori dirudi eskatzen ari zaiola, bi ardo tazatxo. Edo garaipenaren ikurra da? Ardo tazatxo edan duelako ospatzen ariko da? Zilarrezko ontziaren azpian tanta bat gelditzen zaio ba, Erkuengo ermita ondoan egonen da.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Sakantzen Sarearen uda ikastaroak,
Josune Zabala (Gizarte teknikaria)...

Esataria: *Maiden*

SAKANA

Frackingaren kontra txirrindulaz

Asteartean iritsiko da Sakanara Ekologistak Martxan taldeak hilaren 11tik 27ra Palentzia eta Pasai-Donibane artean antolatutako Ekomartxa

Berrehun bat pertonek eman dute izena laugarren urtez Ekologistak Martxan taldeak antolatutako Ekomartxan. *Amalurra ez ikutu, haustura hidraulikorik ez* leloa du ekomartxak. Fracking edo haustura hidrauliko egitasmoak aurreiku-

si diren lurraldeetan barna eginen dute ibilbidea: Gaztela-Leon, Kantabria, EAE eta Nafarroa zeharkatuko dituzte.

Petrolio merkea bukatzen ari dela eta "diruaren eta kontsumoaren totem asegaizta elikatzen segitzeko erregai fosilak edozein tokitan bilatu nahi dituzte". Suntsiketamaina gelditzeko garaiz gaudela diote Ekologistak Martxanekoek.



Txirrindulariek etapa bakoitzean martxaren manifestua irakurriko dute.

Aisia eta aldarrikapena

Antolakuntzatik azaldu dutenez, Ekomartxak aldarrikapen eta erakuntza kolektiboko espazioa izan

nahi du. Horregatik, aisialdi jarduerekin batera, auto-prestakuntza eta aisi tarteekin batera, aldarrikapen ekintzak eginen dituzte.

Hala, Ekomartxan parte hartzen duten txirrindulariak tokian tokiko plataformetako kideekin elkartuko dira eta frackingak inguru hartan zein eragin zehatz izanen lituzkeen azalduko diete.

Horretaz aparte, bestelako ingurumen gatazken inguruan lanean dauden erakundeetako ordezkariekin elkartuko dira, haien borrokaren zergatia ezagutzeko. Sakanan, esaterako, goi tentsioko argindar linearen, Abiadura Handiko Trenaren eta errausketaren kontra dauden erakundeetako ordezkarien ahotik azalpenak jasoko dituzte martxistek.

Frackinga Sakanan

Frontera Energy Corporation, SL enpresak hidrokarburoen inguruko ikerketa egiteko Espainiako Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren baimena du. Aipatu enpresak Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa hartzen duen lur eremuan eginen du ikerketa. Guztira 102.884,3 hektarea ditu eta Sakanan barnean hartzen du. Eremua Pegaso izenarekin bataiatua dago.

Nondik dator gasa?

Sakana itsaso azpian zegoenean, hemen area, buztina eta mikro-partikula organikoak zeuden. Azken horiek buztinaren partikulen artean sartu ziren eta milioika urteko presio eta beroaren ondorioz hidrokarburo bihurtu ziren. Buztin geruzaren barruan mantentzen dira, poro txiki-txikietan, gas tanten moduan.

Hainbat tokitan gasa buztinetik edo haitzetik atera eta presioaren ondorioz mugitu egin da. Gas horrek geruza iragazgaitz batekin topo egiten duenean, lurpean pilatu egiten da, gas putzua bihurtuz. Ohiko gas zundaketa batekin atera daiteke gas hori.

Frackinga

Gasa buztinetik gutxi mugitzen denean, hura ateratzeko ezohiko teknika erabiltzen da: haustura hidraulikoa edo frackinga. Haste-ko, 5.000 metrora arteko zulo bertikala egiten da. Segituan, horizon-

talean zulatzen segitzen da, 2 eta 5 km arteko luzeran.

Ondoren, presio handian ura, gehigarri kimikoak eta harea nahastuta sartzen dira. Teknika horrek haitza edo buztina hautsi eta gasa askatzen du, punpen bidez lurzorura igoaraziz. Prozesua haitz zain guztian errepikatzen da. Sartzen den nahasketa horren zati bat azalera itzultzen da (%15-85 artean). Ateratzen dena berrerabili edo baltsetan jasotzen da gerora tratatzeko.

Kezka

Ekologisten kezketako bat gasa askatzeko erabiltzen diren gai kimikoak dira, legalki, sekretu direnak. Gai kimiko horien zati handi bat lurpean gelditzen dela nabarmentzen dute eta, ondorioz, akuiferoak kutsatu daitezkeela. Nabarmendu duten beste arrisku bat buztinean egon daitezkeen bestelako gai kutsakorrek askatzea litzateke. Haustura hidraulikoak askatutako gas batzuk gora egin eta negutegi efektua areagotzeko aukera dagoela ere azpimarratzen dute ekologistek.

Frackinga Ameriketako Estatu Batuetan garatu den teknika da eta, antza, "tamaina handiko kalte ekologikoak sorrarazi ditu eta makina batsalaketa izan dira". Ekologisten iritziz, "gasa ateratzeko lur-azpia pozoitzea ez da ez ego-kia, ez jasangarria". Energia berriztagarrii bulkada eman behar zaiela azpimarratu dute.

Egitaraua

>> Garilak 22, asteartea. 9.

etapa, Lizarra-Altsasu (55 km)

12:00etan Txistor jate begetarianoa, eguzki-energiaz egina (piperrak izanen dira), Iturriotz iturrian (mosquitos). Frankingari, energia berriztagarrii eta energia ereduari buruzko hitzaldi laburra (10 minutu).

13:00etan Olatzagutira iritsi. Bazkari autogestionatua.

18:00etan Elkartean errausketari buruzko hitzaldi laburra.

18:45ean Altsasura bizikletan.

19:00etan Altsasan, bizi-kritika.

19:30etan Porlandegian: pankartada eta argazkia. Kontzentrazioa.

20:00etan Olatzagutian, bizi-kritika.

21:00etan Afaria (8 euro).

Altsasuko kiroldegian lo.

>> Garilak 23, asteazkena.

10. etapa, Altsasu-Iruña (Oskiatik barna, 57 km)

8:00etan Irteera.

9:00etan Etxarrin, bizi-kritika. Atez atekoari buruzko hitzaldi laburra plazan.

10:15ean Uhartan, bizi-kritika motza eta AHTri buruzko hitzaldi laburra.

11:00etatik 12:00etara Gosari autogestionatua Irañetako Urruntzura iturburuan.

13:15ean Irurtzunen, bizi-kritika motza eta Goi Tentsioko Argindar linea Sakanan hitzaldi laburra.

14:30ean Iruñera iritsi. Bazkari autogestionatua.

18:30ean Iruñean, bizi-kritika.

20:00etan Zilbetiko harrobiari buruzko hitzaldia Arrano elkartean.

21:00etan Afaria beganoa (7 euro). Atarabiako Lorenzo Goikoa frontoian lo eginen dute.

UDA

IKASTAROAK

uztailak 14-27

KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAK

Uztailak 18. 17:00-20:00 · Uztailak 19. 10:00-14:00

Komunikazio estrategikoa: produktu eta kanpainak lantzeko irizpide minimoak.

Irakaslea
Itziar Amunategi Barandika: Komunikazioan lizentziatua eta Masterra Entrepesa Komunikazioan. Postgradua Komunikazio Zuzendaritzan. Aspaldidanik komunikazio eremuan. Egun BASQUETOUREn lanean.

SAKANAKO HISTORIA I

Uztailak 22. 18:00-20:30

XIV.mendeko Erdi Aroko populaketa. Publikoaren eta pribatuaren arteko desberdintasunak historiaren bitartez.

Irakasleak
Mikel Markotegi Ijurko: Ezpilleta Elkarteak kidea.
Francisco Javier Castro: historiagilea eta Aranzadi Zientzia Elkarteak Etnografia sailako kidea.

SAKANAKO HISTORIA II

Uztailak 23. 18:00-20:30

Euskal Herriko bide erromanikoa. Megalitismoa, artzaintza eta historiaurreko ustiapenak.

Irakasleak
Oihan Mendo Goni: Arkeologoa.
Pedro Arrese Villanueva: Institutuko Historia Irakaslea.

NEKAZARITZA BIRSORTZAILEA

Uztailak 26. 09:00-13:30/15:00-18:00
Etxarri Aranazko Udalean

Bertako mikroizakien hazitegia, biogarriak eta bokashia.

Irakasleak
Gipuzkoako Ximaupila elkarteak: Euskal Herriko Nekazaritza Birsortzaileak Sustatzeko Taldea.

SAKANAKO HISTORIA III

Uztailak 27. 10:00-13:30
Uharto Arakilgo Udalean

Agiregi jendez hustutako herrixka eta Gordetxeko trikuharrien ibilbidea.

Irakaslea
Mikel Markotegi Ijurko: Ezpilleta Elkarteak kidea.

Ikastaroak Utzugane Sakanako garapen gunean izango dira, Arbizuko Utzubar Industria guneko 8an. Plaza mugatuak. Izen emateko deitu 685759056 telefonora edo idatzi sakantzensarea@gmail.com helbidera.



Xabier Reparaz Extramiana

astekoa

Jaun Zuria

Euskal kondaira zaharretan eza-guna zen Bizkaiko lehen jaunaren jatorria. Urdaibaiko itsasadarrean atsedean hartu zuen drakar bikoaren barruan zetorren printzesa eskoziarrak Mundakan erditu zuen mutiko begi urdin haren istorioa. Euskaldunek haren aitaren berri ezin jakinik eta itsasontziaren

brankan ageri zen sugetzar hura Sugoien jenoia zela sinetsirik haren seme izendatu zuten biko txiki hura. Jaun Zuria deitu zuten. Bertan hazi zen eta behin gizonduz zenean, bizkaitarrak batu eta asturiar inbaditzaileak garaitu zituen Arrigorriagako guduan. Hona IX. mendeko kondaira, ipar europarrak

gurean agertu zireneko. Gaur egun ere baditugu drakarrak gabe, baina gurera iritsitako daniarrak. Arbizuko eko-karpinean eraikuntza lanetan hasita ugari ziren sanjuanetan Jaun Zuriaren urruneko ahaide hauek. Haien artean bizardun tximaluze bat nabarmen. Lagunak jaioteritik ekarririk ere

ezin izan zitzaizkien arbizuar sokatirako neskei plazan gailendu. Baina halako Erdi Aroko gesta lortu ezinik, harritu ninduen gauza batez ohartu nintzen, bi hilabete eta erdian euskaraz moldatzen ikasi izana eta beste hizkuntzak gogotsu bazterturik, arbizuarrak euskaraz mintzatzen behartzen zituela.

Atzeritarrari beti erdaraz egin izan zietenek eta ingelesez moldatzen ziren haiek, hobe Jaun Zuri berri harekin euskaraz mintzatu. Nork jakin noraino iritsiko zaizkigun XXI. mendeko abenturazale nordiko hauek, baina, ez harritu, jartzen dizkionten gogoekin gure artean ospetsu bihurtzen badira.

hara zer dien

Bizikidetzaren harmonikoa

Aniztasunari errespetu osoa abiapuntu izanik, kulturen arteko harremanetara iristen gara.

Zertan gauzatzen da hori? Bi kultura edo gehiagoren arteko hartu-emanen. Nola egiten da hartu-eman hori? Modu horizontal eta sinergikoan, hau da, inongo kultura ez da bestearen gainetik jarriko edo gehiagotzat hartuko, hala, gizaki ororen integrazioa eta bizikidetzaren harmonikoa erraztuko da.

Harreman mota honek aniztasunarekiko errespetua suposatzen du. Gatazken izatea saihestezina izango bada ere, hauek errespetuz eta elkarriketaz gaindituko dira, hala, gatazka partek irabazteko aterako direlarik.

Dena den, hartu-harreman horiek ez dira kultura esparrura soilik mugatzen, baizik eta hiritar eta herritarren artean ere, gizon-emakumeen artean, haurhelduren artean.....

Bizikidetzaren harmonikoa ordea, biztanle bakoitzaren esku dago.

Horren aurrean zer egin dezakezu/gu z/guk?

Irakurkizun xume batzuk.....

-Agian, pentsa dezakezu/gu beste ez dela zuk/guk uste duzun/gun bezalako.

-Ez inor epaitu ezagutzen ez baduzu/gu behintzat.

-Ireki bihotzeko begiak.

-Hurbildu benetako, egiazko interesaz zure/gure auzokoarengana.

-Ez inori kanpotar deitu, zeren eta nork daki kanpora joan behar

ra ote zaren/garen zu/gu.....

-Galdetu errespetu osoz, kontu handiz, jakin mina sortzen dizunaz/digunaz.

-Bestea zuk/guk tratatua izan nahi duzun/gun moduan tratatu.

-Zu/gure hoberena, gehien maitatu duzu/guna, kuttunena dena, eskaini zu/guregatik desberdina den pertsona horri: hizkuntza, jakia, gozoa, gonbiteren bat... eta egin froga elkartzeko horretatik zer ateratzen den.

-Inolako eskubide urraketaren berri baduzu/gu salatu, halakorik berriro gerta ez dadin.

-Eta garrantzitsuenak: ez ahaztu, bestea, "desberdina" dena, zu/gu bezain PERTSONA dela. Uste duzu/guna baino berdintasun gehiagorekin, komunean gauza askorekin.

-Eta nahi/behar izan gero, jo Immigrazio Zerbitzura. Bihotz zabal hartuko zaitugu eta.

Bego Zestau,
Immigrazio zerbitzua

barrutik kanpora

Amaitutzat jo da errausketa Huelvako porlandegian

Zementu-fabriketan errausketa-aren kontrako Andaluziako elkarre eta herri mugimenduek garaipe oso garrantzitsua lortu dute Andaluziako Juntak, Nieblan dagoen porlandegiak zementua ekoizteko labeetan hondakinak erre ahal izateko tramitatutako baimena amaitutzat eman duenean.

Olaztikozementu-fabrikarekin ez bezala (hemen Nafarroako Gobernuak udalaz gaituzteko pla-

na onartu du, Olaztikoko Udala saihesteko), Juntak Nieblako Udalaren autonomia aitortu du, jarduera hau bere herrian burutzeari kontra aurkeztutako txostenak dioena aintzat hartuz eta horiespedienteak amaitutzat emateko arrazoi nahikotzat iritiziz.

Jarduera horren eraginpeko herritarren nahiari eta beren bizi kalitatea eta inork bere etxe ondoan nahi ez duen jarduera horrek ekar ditzakeen gaixotasu-

nik eta ondorio larriak gabe bizi osasuntsua bermatzeko onartu dituzten udal araudiei zor zaion errespetuari dagokionez, aldea izugarria da, eta beste behin agerian utzi du UPNren gobernuaren jarrera autoritario eta ipurgarbitzailea.

Aipatzekoa da, bestalde, Nieblako kasuan ez bezala, Olaztikozementu-fabrikaren babesten duten alderdien jarrera hipokrita. Andaluziako zementu-fabrika horretan

errastearen kontrako PSOEren jarrerari, oraindik irmoagoa ageri den Partidu Popularrarena ere gehitu behar zaio. Hau, hondakinak zementu-fabrikaren erretzearen erabat aurka agertu da, eta "El fuego purificador" izeneko bideoak jarduera horrek osasunean, inguruenean, ekonomian eta enpleguan duen eragin kaltegarriari buruz dioena hartzen du oinarritzat bere jarrera justifikatzeko.

<http://olaztinerrausketarikez.blogspot.com.es/>



3mugak baterra

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano eta Eñaut

Arribengoa Apaolaza
ZUZENTZAILEA: Garazi Barandalla Kanpos
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuordetza

SAKANA

Komunikazioa Uda-Ikastaroen segidan

Gaur eta bihar landuko dute gai hori. Heldu den astean Sakanako historia eta nekazaritza birsortzailea ikastaroen txanda izanen da. Izen ematea zabalik dago

Ibarreko biztanleei prestakuntza eskaintzeko ahaleginean Sakantzen Sareak Uda-Ikastaroak antolatu ditu bigarren urtez. Enpresa, elkarte, erakunde zein pertsona askorendako komunikazioa "atal klabea" dela jakinda, *Komunikazio estrategikoa: produktu eta kanpainak lantzeko irizpide minimoak* ikastaroa antolatu du. Gaur, 17:00etatik 20:00etara eta, bihar, 10:00etatik 14:00etara, Arbizuko Utzugane, Sakanako Garapen Gunean izanen da.

Itziar Amunategi Barandika irakasleak (Komunikazioan lizentziatua eta Enpresa komunikazioan masterra) komunikazioa planifikatzeko, prozesua ulertzeko eta ezagutzeko gakoak emanen ditu. Horretarako, iragarlearen zerbitzura dauden komunikazio teknikak eta beren aplikazioa ezagutzeko aukera izanen dute ikasleek. Aldi berean, lan taldearen bidezko komunikazio plan baten garapena eta proposamenean praktikatzeko aukera izanen da ikastaroan.



Web-gintzari buruzko ikastaroarekin hasi ziren astelehenean, dozena erdi sakandar trebatu zituen Galder Gonzalez Larrañagak.

Gehiago

Sakantzen Sareak Sakanan sortu berri diren bi elkarterekin batera antolatu ditu ikastaroak. Ezpilleta elkartearekin Sakanako historiaren hainbat aspektu landuko dituzte hiru egunez, heldu den asteko asteartean eta asteazkenean, 18:00etatik 20:30era, Arbizuko Utzugane, Sakanako Garapen

Gunean eta igandean, 10:00etatik 13:30era, Uharteko Arakilgo Agiregiko aztarnetegian.

Uda-Ikastaroak nekazaritza birsortzaileari buruzko ikastaroekin despidutako dira garilaren 26an, larunbatean. Mandoibai elkartearekin batera Sakantzen Sareak antolatutako ikastaroan lurra lehengoratzeko laguntzen

Izena ematea

sakantzensarea@gmail.com helbidera idatziz eta 685 75 90 56 telefonora hots eginez. Toki mugatuak daude.

duen teknikez argibideak emanen dira.

Historia ikastaroko egitaraua

Garilak 22, asteartea. 18:00etatik 20:30era.

XIV. mendeko Erdi Aroko populaketa. Publikoaren eta pribatuaren arteko ezberdintasunak historiaren bitartez.

Irakasleak: Mikel Markotegi Ijurko, (Ezpilleta elkarteko kidea) eta Francisco Javier Castro (Historiagilea eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia saileko kidea).

Garilak 23, asteartea. 18:00etatik 20:30era.

Euskal Herriko bide erromaniakoa. Megalitismoa, artzaintza eta historiaurreko ustiapenak. **Irakasleak:** Oihan Mendo Goñi (Arkeologoa) eta Pedro Arrese Villanueva: Institutuko Historia Irakaslea.

Garilak 27, igandea. 10:00etatik 13:30era.

Agiregijendez hustutako herrirka eta Gordetxeko trikuharrien ibilbidea.

Irakasleak: Mikel Markotegi Ijurko, (Ezpilleta elkarteko kidea).

Lehengoa ezagutzeko elkartea, Ezpilleta

Ezpilleta, Sakanan eta inguruan arkeologia eta historia lana egiten duen eta sortu berri den elkartearen izena da

Ezpilleta Lakuntzako dermio bat ere bada. Han kalkolitiko hilobikobak opatu dituzte (4.000 bat urte). Ezpilleta elkartea, Sakantzen Sarekoek proposatuta Uda-Ikastaroetan parte hartuko du heldu

den astean. Lau hitzaldi izanen dira: Erdi Aroko populatze eta despulatzea; erromatar bideak Euskal Herrian; megalitismoa eta, azkenik, komunalen garapena Gipuzkoan eta Nafarroan.

Hitzaldien bidez, esaterako, 1300 urtean 90 bat herri izatetik gaur egun Sakanan 28 herri dau-

dela ulertzeko arrazoiak izanen dira. Megalitismoan dugun aberastasuna azalerratu da ikastaroetan eta erromatar bideak nola zeuden eratuak ere argituko da. Azkenik, gaurkotasunezkoa izan daitekeen komunalen gaia: toki administrazioa aldatzeko legea egiten da eta komunalak udalen

jabetza izatera pasako ote diren ikusteko da. "Historikoki pribatizazioarako aurreneko urratsa izan da hori", azaldu digu Markotegik.

Ezpilleta elkarteko lehendakari Mikel Markotegi Ijurkok azaldu digunez, ikastaroa historian zaletuei zuzenduta dago. Baita

turismo arloko eragileei ere, "halakoan promozioa egiten jakin dezaten eta ibilbide turistikoetan sartzea ez baita soilik tokira joatea eta monumentua ikustea, gainera normalean ez du ezer esaten. Haien inguruan gidoi bat sortu behar da".

gertutik >>

Mikel Markotegi Ijurko**Ezpilleta elkarteko lehendakaria****Noiz sortu zen?**

Lanean lau urte egin ditugu, baina elkartea, berez, duela bi hilabete eratu da legalki. Sei edo zazpi bat gara, Barañain, Añezkar, Lakuntza eta Etxarri Aranazkoak. Gure asmoa taldea ahalik eta bazkide kopuru handienera zabaltzea da. Batzuk gehiago jakinen dute, besteek gutxiago, baina denak zaletuak gara.

Nola egiten duzue lan?

Gurea landa azterketa da, batetik bestera ibiltzea. Ibilaldi horietan arkeologia-guneak non dauden



begiratzeko dugu: populazio guneetatik lur emateko eremuetara, elementu etnografiko-historikoak (gurutze-bideak, hilarriak...). Arkeologia-aztarnak opatzen saiatzen gara ere: zeramika, metalikoak... Paleolitikotik Aro Modernora edo Garaikidera bitarteko arkeologia-elementuak azalerratu da gure egitekoa. Mota guztietako elementuak jaso-

tzen ditugu. Baita jendeak opatu dituen piezak. Inbentariatu egiten ditu, argazkia atera, fitxa osatu, kronologia bat ematen diogu eta beste. Arkeologia-interbentzioa, berez, oso gutxi edo ezer ez egiten dugu. Salbuespena da Pedro Arrese taldekideak Agirin egin duen indusketak edo guk aldi behin egin dezakegun lagin bat egitea. Hau da, zulo txo bat egitea aztarnek erakusten dutena baino piska bat gehiago dagoen ikusteko. Baina gurea, batez ere, landa azterketa da.

Lau urte paseatzen... eta fitxa horiekin zer egiten duzue?

Guk zerbait opatu edo zerbait egon daitekeela adierazten duen aztarna motaren bat ikustean, berehalakoan Vianako Printzea erakundeko

arkeologia arduradun Jesus Sesma Sesma jakinaren gainean jartzen dugu. Harreman bikaina dugu. Gainera, horiek dira eman beharreko urratsak. Ezinda zerbait opatu eta ez komunikatzea. Legez horretara behartuta gaude. Horregatik, guk berehala jotzen dugu haiengana. Baina landa-azterketan interes handiko piezak baino arrastoak opatzen dira. Guk osatutako fitxeekin orain datu-basea egiten ari gara.

Jendeak etxean opatutako elementu asko ditu.

Han opatutako txanpona, bestean opatutako aizkora... horiek dira opatzen errazena. Edo bakarren batek disko-formako hilarri bat non dagoen dakiela... Halakoak guretzeko informazio garrantzi-

tsua dira. Piezak batzutan ez du baliorik, baina non izan den opatua baldin badakizu aztarnategi baten edo bestelako ideia bat ematen dizu. Aldi berean, interesgarria da jakitea jendeak dakizkien gauza batzuk: halako tokitan hilerrri bat agertu zen, bestean... Jendea piezak kenduko dizkieten beldur da. Baina ez da kentzen. Gainera, 1985 baino lehenago opatua bada, opatu duenarena da.

Asko inbentariatu duzue?

Espero genuena baino gehiago. Neolitikoa, Kobre, Brontze eta Burdin Aroetakoak, Erromatar garaikoak... Inbentariatu gabe ditugu Erdi Aroko despulatutako guztiak. Lan handia egin dugu eta dago egiteko.

Osorik www.guaixe.net-en.

» Arbizu

Palestinarekiko elkartasun ekitaldiak deitu ditu udalak

Heldu den ostegunean izanen dira, 19:00etatik aurrera

Israelek Palestinako Gaza eremua-
ren kontrako eraso militarra salatzeko eta palestinarekiko elkartasuna adierazteko Arbizuko udalak ekitaldia antolatu du heldu den ostegunerako. 19:00etan San Juan ermita ondoan landatutako olibondoaren ondoan jarri du hitzordua Arbizuko Udalak. Hango ekitaldia despeditu eta gero parte-hartzaileak plazara jaitsiko dira eta

han, 19:30ean hitzaldia izanen da. Martxelo Diaz kazetaria eta Palestinan brigadista izandakoa izanen da hizlaria.

Senidetza

Arbizu 2005eko garagarriaren 14an Palestinako Zisjordanian dagoen Marda herriarekin senidetu zen. Senidetze horren ondorio izan dira gerora zenbait arbizuarrek Palestinara egindako bidaiak, palestinarraren eskaerari erantzunez udalak



Palestinatik Arbizura behin baino gehiago etorri dira. Olibondoa erdia dago.

Israeli boikotegiteko deialdia zabaltea eta bat egitea, *Olibondoetatik Apartheid Hesira* liburua edota palestinarraren bizimodua erakuste-

agatik Nazioarteko Kooperaziorako Garapenerako Espainiako Agentziak eta Hezkuntza Ministerioak Arbizuko eskolari emandako saria.

Palestinaren aldeko kontzentrazioa

Igandean, 20:30ean izanen da, Iturmendiko plazan.

Israelgo estatua Gazako eremu palestinarraren kontra egiten ari den eraso salatzeko Askapena eta Iturmendiko Gazte Asanbladak (IGA) deitu dute. Bi erakundeek salatu dute-

nez, "1948ko okupazioaren hasieratik bizirik dirauen zapalketaren beste eraso militar baten aurrean gaude zoritxarrez". Zapalketaren barruan kokatu dituzte harresiak, kolonia ilegalen eraikuntza edota atxilotetak. Antolatzaileen ustez "Estatu Sionistak konponbiderako pausuak eman ordez zapalkuntza inperialista sakontzen jarraitzen du".

Kontzentrazioaren deitzaileek azpimarratu dutenez, palestinarrak euren herria defendatzea baino beste aukerarik ez dute. Gatazka ez dela bi parte berdinen artekoa gaineratuz, "hedabiden nagusiek salzten duten moduan. Israelgo estatu Sionistak palestinarreri egiten duen etengabeko zapalkuntza ez dute kontuan hartzen eta era-

soari sostengua emateko baldintzak sortzen dituzte". AEBei eta EBri beste aldera begiratzeari leporatu diete. "Eraso inperialista, Estatu Sionista eta bere kolaboratzaileak" salatzeari batera, palestinarrak beraiek deitutako Israelen kontrako boikot, desinbertsio eta zigorraren kanpainan sakontzera deitu dute.

» SAKANA

Gaixo dauden presoak askatzeko aldarrikapena autobian

Ventura Tome eta Ibon Iparragirre presoen askatasuna aldarrikatzeko autobia itxi zuten larunbatean

Larunbat goizean hainbat ezezagunek autobia katez itxi zuten Arbizu parean, pintura eta beste bota zuten zorura. Aldi berean, espetxetan gaixotasun larriekin dauden Ventura Tome eta Ibon Iparragirre presoen askatasuna aldarrikatze-

ko pankartak zabaldu zituzten autobia gaineko zubitik eta pintaketak egin zituzten paretan. Ondorioz, autobia trafikoa geldiarazi zuten eta sanferminetako larunbata zenez, Iruñerantz joaten ziren makina bat ibilgailu zeuden bidean. Lekukoek esan digutenez, Foruzaingoa agertu eta kateak moztu arte trafikoa etenda egon zen.

Presoak

Ondarroako Iparragirre 2011ko lastailetik etxean ari zen espetxaldia betetzen, ezarritako eskumuturreko telematikoa eramanez eta hainbat neurri betez. Martxoan berriz atxilotu eta Navalcarneron bakartuta dute egun. Hiesa du eta epilepsia krisiak ditu Iparragirre. Tafallako Tome erregimen

berezian dute Murtziako espetxean. Prostatako eta biriketako minbiziak ditu, eta agian beste bat duela esan diote. Espetxeetan gaixotasun larria duten beste bederatzik euskal preso daude eta haien berehalako askatasuna aldarrikatzeko makina bat manifestazio eta ekimen egin dira azken hilabeteetan Euskal Herrian barna.

» Altsasu

Sozialistek idazkari berria dute

Hilaren 26 eta 27ko ez-ohiko kongresuak Pedro Sanchez idazkari nagusi karguan berretsiko du

Alderdi sozialistako militanteek Pedro Sanchez aukeratu dute alderdiko idazkari nagusi kargurako. %65,8ko parte hartzearekin, Sanchezek bozen %48,69a jaso zuen eta berak arduratu beharko

du berritzeaz. Beste bi hautagaiei dagokienez, Eduardo Medina militanteen %36,19k babestu zuten eta Jose Antonio Perez Tapias, berriz, %15,12k.

Nafarroan parte hartzea %73koa izan zen (1.225 boto) eta parte hartze horregatik PSNko zuzendaritzak alderdikideak zoriondu ditu. Nafarroan babes gehien lortu zuen hautagaia Medina izan zen (602 eta %49,12). Perez Tapiasek, berriz, 138 militante nafarren babesa jaso zuen (%11,27). Altsasun Madinak eskeratu zuen boto bat ez beste, gainontzeko guztiak Perez Tapiasek eskeratu zituen.

ro beste bozketa batean parte hartuko dute. Nafarroako sozialisten idazkari nagusia aukeratzeko izanen da. Roberto Jimenez ordezkoa aukeratzeko egutegia ez da zehaztu baina lastailean izan liteke. Orain bezala, hautagaiek militanteen abalako jaso beharko dituzte eta bozketa etorriko da. Ondoren kongresuak aukeraketa berretsiko du.

Berriro

PSNko militanteek aurten berri-

» Arakil



Arakilgo eguneko bazkarirako txartelak salgai

Hilaren 26an ospatuko da Arakilgo eguna. Ohi bezala eguerdi partean arakildarren bilgune Egiarretako Itxasperi ermita erromanikoa izanen da. Ondoren festa Urritzolara lekualdatuko da. Aurrekoetan bezala aurten ere herri bazkaria izanen da. Arakilgo egunean mahaiaren bueltan eseri nahi duenak udaletxean bazkarirako txartelak erosteko aukera du. Arakilen erroldatuta dauden helduek 15 euro ordaindu beharko dituzte, 7 euro haurren kasuan. Ibarrean erroldatuta ez dauden helduek 22 euro eta haurrek 12 euro ordaindu beharko dituzte. Bazkarirako txartelak asteazkenean arte egonen dira salgai.

AGIRRE
Altzariak & Aroztegia
Ongi pasa festetan!

948 562 262 · Portuko kalea 19 · Urbasa bideg. · OLAZTI

EROSKI city
La paz 51 · Altsasu

25€ko erosketa + iragarki hau = **2€KO DESKONTUA**

50€ko erosketa + 2 iragarki = **4€KO DESKONTUA**

75€ko erosketa + 3 iragarki = **6€KO DESKONTUA**

OPARI

*Abuztuaren 31ra arte.
(Deskontu metagaria tiket berean, erosketa eskakizunaren batuketara handiagoa bada)

SAKANA

Ibarraren sareko bisita txartela

www.sakondusakana.com web orriak Sakanaren kanpo ataria izan nahi luke

Sakanako Garapen Agentziak estatuta, gure ibarraren kultur eta natur aberastasunak ezagutzera emateko web orria dagoeneko sarean dago: www.sakondusakana.com. Ibarriari osatzen dituzten herriei buruzko informazioa dago web orrian. Horretaz aparte, Sakanak natura, kultura eta kirol arloan eskaintzen duenaren berri ematen da. Ostata hartu beharren dutenendako informazio praktikoare-

kin batera, bisitariak jate eta bertako produktuen inguruan jakin-garriak jasoko ditu.

Gonbitea

Sakanako Garapen Agentziak Iker Manterolak azaldu duenez, sareko ate horrekin estrategia komunikatibo berria abian jarri da: "web orrian oinarrituta beste komunikazio tresnak indarrean jarri dira". Facebook eta Twitter sare sozialetan profilakegin dituzte. Baita Flickr, Youtube eta Vimeo ataritan ere.

Manterolak sakandarrei lagun-

tza eskatu die, sare moduan lan egingez, web orria eta Sakana ibarretik kanpo ezagutzera emateko. Horretarako, proposatu du sakandarrek sare sozialetan ematea, baita sare sozialetan jarraitzaile egitea eta edukiak partekatzea ere. Web orria bisitatu eta iradokizunak, ideiak, akatsak edo beste jakinarazteko eskaera ere luzatu dute Sakanako Garapen Agentzietatik, "denon artean hobetzeko". Horretarako sakondusakana@gmail.com e-postara zuzentzeko aukera dago.



Web orrian irudiak garrantzi handia du.

» Uharte Arakil

Iriburu eta Zubiaur-Mendikoa industrialdeak arautzeko bidean

Bi aldeetako teknikarien bileren ondoren udalak behin behineko onarpena eman dio eta Nafarroako Gobernuaren behin betiko onarpenaren zain geldituko da

Pasa den hileko bilkuran Uharte Arakilgo Udalak Iriburu eta Zubiaur-Mendikoa industrialdeen egoera desblokeatzeko erabakia hartu zuen. Lastailan erabakia bera hartu zuen Uharte Arakilgo Udalak, baina ilbeltzean Nafarroako Gobernutik akordio hura baliogabe uzteko eskatu zioten. Otsailean, bestalde, udalean jakin zuten Espainiako Auzitegi Gorenak atzera bota zuela industrialdearen sustatzaileek jarritako



Uharte Arakilgo ikuspegia Iriburu industrialdeko urbanizaziotik.

ko kasazio helegitea.

Gauzak horrela, bi administrazioetako teknikariek industrialdearen egoera desblokeatzeko eta legeztatze moduak aztertu dituzte. Ainara Aiestaran alkate-ordeak esan digunez, "hiru urte daramatzagu desblokeatzen saiatzen, guztiz legeztatuta jardueraz lizentziak ematen hasteko". Teknikarien elkarriketen eta udalaren behin behineko onarpenaren ondoren, Aiestaranek Nafarroako Gobernuaren behin betiko onarpena etorriko dela espero du. Antza, industrialdean kokatzeko interesa luketen enpresak leudeke.

Auzi-bide luzea

Udalak hartu zuen erabakiarekin epaia betearaztearen eta legeztatzearen prozesu bikoitza osatu nahi du eta 2005ean hasitako auzia itxi. Urte hartan udalak berak dermio horietako hirigintza arauak aldatzea erabaki zuen, haietan industrialdeak egiteko. Baina epaitegiak bertan behera utzi zuen udalaren erabakia orduko alkateak bozketan abstenitu beharra zuela azalduz. Epaia iritsi zenerako, ordea, Iriburuko industrialdeko 66.000 metro karratu urbanizatuak zeuden.

» Ziordia

Udala Aralurreko hondakinendako konponbide bila

Enpresa itxi eta gero gelditu diren hondakinak kentzeko Ingurumen Departamentuari bilera eske ari zaio

Aralur enpresak bere jardueraren eten ondoren lantegiaren inguruan hainbat hondakin pilagelditu dira. Jesus Arrese alkateak esan digunez, "benetako arazo da. Enpresa itxi da. Hondakinak hor utzi ditu eta inork ez du ezer esaten". Arresek jakinarazi digunez, dagoen egoerari konponbidea bilatzeko Ingurumen Departamentuarekin eta jabetza kudeaketaren epaitegiko ordezkariekin bilera bat egin zuten otsailaren 25ean.

Ordutik ez da ezer egin eta Arrese kexu da duela bi hilabete Ingurumen Departamentuari bilera egiteko eskatu ziotelako eta erantzunik ez dutelako jaso. "Hondakinak kendu egin beharko dira eta azkar egiten ez bada lurretik kutsadura ere kendu beharko da", esan digu alkateak. Hondakinak kenduta pabilioietan jardueraz jartzeko bakarren batek interesa izan dezakeela azaldu du alkateak.

Hondakinez

Aralur Gipuzkoako atez ateko bil-

ketarekin jasotako eta guztiz konpost bihurtu gabea zegoen materia organikoa tratatzeko ekartzen hasi zen 2012ko udaberri hasieran. Ziordiarrek usainengatik kexu azaldu eta udalak Nafarroako Gobernuari jakinarazi zion hondakinak behar bezala biltegiatuz ez zezudela. Foruzainen ikuskaritzaren ondoren, jarduera hori egiteko Aralurrek hainbat lan egin behar zituela adierazi zuen gobernuak. Gaur egun 30 tona inguru materia daude lantegi inguruan.



Aralur lantegiaren ezker eskubi eta atzeko aldean daude hondakinak.

PAKO
HARATEGIA
Ongi pasa festetan!
Kale Nagusia, 50
OLAZTI
948 562 858

Ezkaba S.L.
Suteen prebentzio sistemak
INSTALAZIO ETA MANTENTZE-LANAK
- Su-itxalgailuak
- Biesak
- Sute-zentralak...
ESKAINZA BEREZIAK
- Auzokideen komunitateak
- Ostalaritza
- Abeltegiak
Iruñea
948 382 271 - Maburak: 671 619 018
www.prevencionezkaba.com

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta
Astehenetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€
Asteburuetan
Menu berezia 25€
948 467 876 • Altsasu

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak
Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

FESTAK

Irurtzun:



>> Garilak 18, ostirala

10:00etan Dianak, trikitiak.
10:00etan Pilota. Irurtzongo pilota kluba.
11:30ean Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa.
11:30ean Herri kirolak. Helduak. Plazan izena eman.
12:00etan Musika bermuta, Luzianok emana.
14:00etan Kalderete lehiaketaren ebazpena. (Izen ematea 11:00ak arte arkupeetan).
14:30ean Kaldereteak, herri bazkaria.
16:00etatik 20:00etara Parkea: tren neumatikoa, puzgarriak. Gernika plazan.
17:30ean Noeren ontzia. Gorriti eta bere animaliak. Gernika plazan.
19:30ean Kale antzerkia. Vive soñando. Trapu Zaharra. Foru plazan.
20:30ean Dantzaldia Diamante el show del calvo taldearekin.
22:00etan Larrain dantza.
22:25ean Zezensuzkoa eta buruhandiak, Kultur etxean hasi eta Gernika parkeraino.
22:30etik 1:30era Gau aktiboa: bideo joko festa, bideo-jolasak, Wii kontsolak, Play Station, Kinect dantza... 10 eta 18 urte bitartekoendako. Plazako frontoian.
00:00etatik 4:00etara Dantzaldia Diamante el show del calvo taldearekin.

>> Garilak 19, larunbata

8:00etatik 20:00etara 12 ordu areto futbola 2014.
10:00etan Dianaka, akordeoiliariak.
11:45ean Kontxo, Kontxo. Gari, Montxo eta Jose Lontxo Tutik Clowns. Plazan.
13:00etan Musika bermuta, Duo Imperial taldearekin.
14:30ean Adinduen bazakaria. Ondoren dantzaldia.
17:30ean Herri kirol jaialdia. Foru plaza.
18:30ean Afizionatuen pilota partidak eta erremonte partidak. Sarrera doan.
19:30ean Funes Van ikuskizuna. The Funes Troupe. Plaza.
20:30ean Abiba disko-jaia.
22:00etan Larrain dantza.
22:25ean Zezensuzkoa eta buruhandiak, Kultur etxean hasi eta Gernika parkeraino.
00:00etatik 5:00etara Abiba disko-jaia.
>> Garilak 20, igandea
10:00etan Dianak, gaitariak.
11:15ean Erraldoi eta buruhandien konpartsen elkarretaratzea. Berriozar, Buztintxuri, Irurtzun eta Los Falcons de Vilafranca del Penedes.
12:00etan Meza.
14:00etan Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa agurra.

Barazki gunea 2014

>> Garilak 18, ostirala
14:30ean Gazteok ere kaldereteetara.
17:00etan Irurtzongo batukada. Txosnetatik hasita.
19:00etan Karaokea Barazki plazan.
23:30ean Kontzertuak: Los txarros txilipastrosos eta Baserritars.
>> Garilak 19, larunbata
7:00etan Kalejira gurdi musikalarekin.
17:00etan Mus eta partxis txapelketa. Ordu erdi lehenago izena eman, 5€ bikoteko.
20:00etan Goitibehera elektrotxaranga, txosnetatik hasita.
22:30ean Herri afaria, plazan. Etxerat.
23:30ean Kontzertuak: Hibakusha, Bertan bera eta Legez kanpo.

Larrazpi gazte elkarte

>> Garilak 18, ostirala
23:00etatik aurrera Jon Evergreen, Jonathan De la Torre, Ion Gast, Adrian Alegria, Eder Pardo eta Julen Roll.
>> Garilak 19, larunbata
21:00etatik aurrera Nöle, I.Arriza, Nitro, Zana, Aseptik noise live!, Loksea, Dj Sergi, Iker B2B Gonzalo eta Gordon.

18:00etan Irurtzongo dantzari txikien eskolaren emanaldia.
18:30ean Eskorgen krono-igoera.
20:00etan Dantzaldia Egan taldearekin.
22:00etan Larrain dantza.
22:25ean Zezensuzkoa eta buruhandiak, Kultur etxean hasi eta Gernika parkera arte.
22:45ean Barrikotea: txistorra, urdaia, sagardoa...
22:45etik 1:00etara Dantzaldia Egan taldearekin.
1:00 Hau pena nik.

Iturmendi:



>> Garilak 18, ostirala. Santa Marina

10:00etan Santa Marinako erromeria.
12:00etan Meza.
13:00etan Dantzaldia trikitiarekin.
19:00etan Auzate San Pedroalden.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Gozo Gozo taldearekin.
22:00etan Afaria, makailua.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Gozo Gozo taldearekin.

>> Garilak 19, larunbata.

Gazteen eguna

12:00etan Altxoraren bila (IGA).
13:00etan Serguei dj-arekin dantzaldia.
15:00etan Makarroi jate bazkaria (IGA).
16:00etan Txirindulari probak.
19:00etan Trikipoteo (IGA).
20:00etan Presoen aldeko kontzentrazioa.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
22:00etan Herri afaria frontoian.
00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

Iturmendiko Gazte Asanbladaren egitaraua

>> Garilak 19, larunbata
12:00etan Altxoraren bila.
15:00etan Makarronada, ostegunean jasotako janariarekin. Sakanako Gazte Asanbladak gonbidatuko dituzte.
19:00etan Triki-poteoa.
20:00etan Elkarretaratzea: Euskal Presoak Euskal Herrira.

>> Garilak 20, domeka

20:00etan Apustuak.
20:30ean Kontzentrazioa: Interbentzio sionistaren aurrean, Palestina aurrera!
 Festetan zehar Ximona Gaztetxea taberna bezala irekiko dute, goiz, arratsalde eta gau. Fritoak, prezio herrikoiak eta giro paregabea!

>> Garilak 20, domeka.

11:00etan Meza.
18:00etan Pilota partidua.
20:00etan Apustu jokoak plazan (IGA).
20:00etatik 22:00etara Serguei dj-arekin dantzaldia.
24:00etan Azken traka. Hau pena nik.
00:00etatik 3:00etara Serguei dj-arekin dantzaldia.

Egunero goiz eta arratsalde auzatea Arranbeltza plazan.

Bakaiku:

Santiago festak



>> Garilak 24, osteguna

12:00etan Festen hasierako etxajua, herriko akordiolariak giroa. Buruhandiak eta japoniar bonbak.
17:00etan Pilota partidak Iturrarte pilotalekuan:
 Kimuak: Lizarraga-Palomares / Lopez de Zubiria-Mikeo
 Haurrak: Araña-Senar / Pozueta-Araña
 Kadeteak: Otxoa-Igoa / Ansotegi-Lazkoz
 Seniorrak: Lopez-Lopez de Zubiria / Ansa-

Otamendi

18:30ean Margotu zure kamiseta.
19:00etan Play back erakustaldia plazan.
19:30ean Salbea eta bezperak Santiagon.
20:00etan Bakaikuko zortzikoa. Auzatea ehiztarien eskutik.
22:00etan Euskal preso eta errefuxiatu politikoan aldeko afaria.
20:00etatik 22:00etara eta 00:30etik 3:30era Gabezin taldearekin dantzaldia.

Bakaikuko herri mugimenduen egitaraua

>> Garilak 23, asteazkena.

Gazte Eguna.
19:00etan Txupinazoa. BGA-ren kamixeta jantzi. Ondoren, euskal preso eta iheslari politikoaren askatasunaren aldeko brindisa.
19:15ean Trikipoteoa.
19:30ean Herri olimpiadak.
20:00etan Auzatea akordeoiliarekin.
20:30ean Kontzentrazioa: "Euskal preso eta iheslariak Bakaikuko jaietara".

22:00etan Afari autogestionatua.
23:30ean Kontzertuak plazan: INGO AL DEU eta NAFARROA 1512.
2:00etan DJ festa BGA tabernan: DJ TXEN...

>> Garilak 24, osteguna.

Etxera eguna.
 "Euskal preso eta iheslariak Bakaikuko jaietara" kamixeta jantzi
20:00etan Urdaiazpiko herri apustua.
20:30ean Denak etxera! Ekimen berezia.
22:00etan Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko afaria.
3:30ean Gaueko jolasak.

Olazti:

Santa Ana festak



>> Garilak 24, osteguna

11:00etan Hamaiketako Kultur Etxean.
12:00etan Suziria. Kalejira. Zapi banaketa.
17:00etatik 20:00etara Txapa tailerra San Migel plazan (12 urtetik aurrera).
18:00etan Pailazoak. Poxpolo eta Konpainia: Poxpolo ta konpainia.com. Sarasate plazan (euria eginez gero, pilotalekuan).

20:00etatik 22:00etara Musika San Migel plazan Trikidantz taldearekin.
20:00etan Banaketa San Migel plazan.
21:00etan Bonba japoniarrek Intsumisioaren plazan.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00tik 3:00etara Trikidantz taldearekin musika San Migel plazan.

Olaztiko herri mugimenduaren egitaraua

>> Uztailak 23, asteazkena.

Gazte eguna.
12:00etan Txupinazoa Maisuenea gaztetxetik. Ondoren potea herritik.
14:30ean Bazkaria Gaztetxean.

17:00etan

Goizkorri Txarangarekin kalejira.
20:00etan Erromeria San Migel plazan Eingo al deu? taldearekin.

>> Uztailak 24, osteguna.

Okupazioaren eguna.
12:30etan Brindisa txoznan.
20:00etan Kontzentrazioa plazan. "Eraso sexistarik ez!".
22:00etan Okupazioaren aldeko afaria gaztetxean.

SAKANA

Urte erdian 225 langabetu gutxiago



Belarra biltzen eta uzta biltzen, nahiko lan aste honetan.

Garagarzaroan seigarren hilabetez jarraian langabezia jaitsi egin zen ibarrean, 135 langabe gutxiago

Garagarrilak ere langabeziaren beherako joerari eutsi dio eta badira bost hilabete joera horrekin. Maiatzean baino 135 sakandar gutxiago zeuden izena emanda

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan. Haietatik %54,63 emakumezkoak ziren (844 eta 70 gutxiago). Gizonezkoak, berriz, %45,37 ziren (701 eta 65 gutxiago). Adinari dagokionez, garagarzaro akaberan langabe gehienek, %47,44, 45 urte edo gehiago zituzten (733, 19 gutxiago).

25 eta 44 urte artean zituzten langabeen %42,52 (657, 64 gutxiago). Eta 25 urte baino gazteagoak ziren lan bila zeudenen %10,03 (155, 52 gutxiago). Sakanan Nafarroako langabeziaren %3,22 genuen pasaden hilean (herrialdearen %3,22 populazioa gara).

Sakandar gehien lan eskararak zerbitzuen arloan pilatzen dira %56,7 (876, 103 gutxiago). Industrian lan egiteko eskaerak %27,64 dira (427, 11 gutxiago). Eraikuntzan aritzeko prest dauden eskaerak %7,38 dira (114, 3 gutxiago). Lehen sektorean, berriz, %2,01 ariko litzateke (31, 1 gutxiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez duten sakandarrak %6,28 dira (97, 17 gutxiago).

Urte hasierarekin alderatuta

Urte hasierako eta urte erdiko datuak alderatuz gero 225 langabetu gutxiago ikusiko ditugu zerrendetan; 197 gizonezko eta 28 emakumezko gutxiago. Adinari dagokio-

Langabezia herrika		
Herria	Langabetua	Aldea
Arakil	51	-15
Irurtzun	158	-31
Irañeta	3	-6
Uharteko Arakil	51	-11
Arruazu	2	0
Lakuntza	75	-6
Arbizu	72	-6
Ergoiena	13	+1
Etzarri Aranatz	144	-17
Bakaiku	18	-2
Iturmendi	20	-1
Urdiain	32	0
Altsasu	786	-28
Olatzagutia	123	-12
Ziordia	27	-1
Sakana	1.545	-135

nez, jaitsiera handiena 25 eta 44 urte dituzten artean eman da, 152 langabetu gutxiago baitaude. 45 urte edo gehiago dituztenak eta lana opatu dutenak urte hasierarekin alderatuz 58 dira. Azkenik, 25 urte baino gutxiagoko zerrenda 15 pertsonetan murriztu da soilik.

Sektoreka, aldiz, urte hasierarekin alderatuta garagarrila akaberan jaitsiera handiena industrian eman da, 104 sakandar

Kontratazioak

Nafarroako Enplegu Zerbitzuan datuen arabera urteko aurreneko sei hilabeteetan 3.484 kontratu sinatu dira Sakanan. Haietatik %56,19k (1.958) gizonezkoen sinadura dute eta gainontzeko %43,8 (1.526) emakumezkoenak. Aurreneko sei hilekoan kontratazioaren hasieratik mugagabe izan diren kontratuak %2,89 (101) izan ziren. Gehienak, %95,29 (3.320), hasieratik aldi baterako kontratuak izan ziren. Azkenik, mugagabe bihurtu diren kontratuak %1,75 (61) izan ziren.

zerrendatik atera ondoren. Zerbitzuen arloa atzetik zuen, 87 langabetu gutxiagorekin. Eraikuntzan 26 izan dira. Bakarria abeltzaintzan eta aurretik lanik egin ez zuten eta lana estreinako opatu zuten artean 7 langabetu gutxiago daude.

>> Ziordia

Aisialdi etxolak egiteko aldaketa onartu du udalak

Aurtengo aurrekontuen bidez kontratazio bat eta kale konponketak eginen dira

Ziordiko Udalak, aho batez, udal hirigintza planean aldaketa egitea erabaki du. Horren arabera lurzoru urbanizazionean aisialdi etxolak jasotzeko aukera izanenda. Jesus Arrese alkateak esan digunez, krisi garaian askok landu gabe duten lursailean familia errenta laguntzeko bide bat ikusi dute. "Baratza, fruta-arbola batzuk, oiloak, ardiak eta beste jarriz egin daiteke hori. Gainera, aisirako ere erabil litezke". Alkateak argitu digunez, ez dira etxeak izanen eta ez dute ez argindarririk ezta uririk izanen. Udalak jasotako eskaerak bideratuko ditu eta eraikitze baimena Nafarroako Gobernuak emanen du.

Aurrekontua

Aurtengo Ziordiko Udalaren aurrekontua 417.000 eurokoa da. Jesus Arrese alkateak azaldu digunez, aurtengo aurrekontuak aurreko urteetako segida dira. Behar egiteko arrazoiak bi dira. Alde bateatik, Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza falta dago eta, bestetik, udalaren diru sarrera nagusietako bat den industria jardueragaineko zer gen jaitsiera dago.

Alkateak azaldu digunez, autobiaz hegoaldeko Ziordiko "enpresa guztien gaineko hipotekak exekutatu dira eta kutxen esku daude. Beste aldean, dagoen harrobian grebogatik jarduna murriztu zenez, udalak hitzartutako gutxienezko jaso du". Beraz, diru-sarreen arabera aurrekontua osatu

Kontratazioa

Udalak deialdiaren baldintzak bete eta langabeziaren zegoen ziordiar bat kontratatu du sei hilerako. Bere egitekoak, besteak beste, garbiketa, igerilekuak, bideen hobetzea eta bestelakoak izanen dira.

zutela adierazi du alkateak. Aurrekontua Na Bai-Independenteen aldeko lau bozkekin eta Bilduren abstentzioarekin onartu zen. Teodoro Percas Mendia Bilduko zinegotziak azaldu digunez, "udalaren aurrekontuarekin ados gaude. Baina abstenitu egin ginen haiek osatzerakoan parte hartu ez dugulako. Alkatetzako taldeak ez gaitu ezertarako aintzakotzat hartzen".

Inbertsioen atalean kale konponketarako 40.000 euro daude aurrekontuan. "Diru horrekin eta



Ziordiarrek tabernako terrazan eserita.

guk aurreztu dugunarekin, diruzaintzako zati batekin baina ez guztia, lau kale konponduko ditugu", azaldu digu alkateak. Kaleetako batean euri-urak jasotzeko sarea

jarri eta zorua berrituko da, gainontzekoetan, berriz, soilik zorua berrituko dute. Bilduko Percas kexu azaldu da kaleak konpontzeko partida ia zazpikoiztu egin dela-

ko, lan horiek pixkanaka egitearen alde azaldu da: "kale guztiak orain konpontzeko beharrik ez dago; heldu den urterako herria laukorik gabe utziko dute".

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

JAVIER
ZELAIA
Pintura eta igeltsua
Zaharberitzeak
eta obra berria
Barneko dekorazioa
Aurrekontua eskatu
konpromezurik gabe

648 143 615 · Altsasu

KOTXKO
Taberna
Ongi pasa festetan
bakaikuarrak!
948 562 607
627 585 414
Bideberrialde
Bakaiku

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)


TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

 **Maria Teresa Urriza Anso**

Zure haziak
dagoeneko fruitua
eman du.
Asko maite zaitugu.

Laura, Josetxo eta Laia

 **Jose Luis Ansa Sanz**

Eskerrik beroenak
erakutsi diguzun guztiagatik.
Beti gure bihotzetan.

Nekane

 **Hainbat aukera**

Galdetu

948 564 275

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin

Foru plaza 23-1 Altsasu • 948 564 275 • argi@guaixe.net

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarrian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Higiezinak LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Dorraoko jaietarako 2 tabernak. Alokatzan dira (abuztuaren 14tik 17ra). Interesatuak deitu 660 88 33 34 telefonora uztailaren 30a baino lehen.

Ihabarren elkarteak alokagai. Denon Kabia elkarteak festetan alokatzen da. Abuztuaren 29tik irailaren 1era. Interesatuak hots egin dezatela abuztuaren 11a baino lehen telefono honetara: 628 46 94 77

Oparitakoak/opatutakoak OPATUTAKOAK

Giltza sorta opatuta. Altsasuko plazako kioskoan hilaren 21ean. Galdu duenak Urtzi tabernara zuzenduz.

GALDUTAKOAK

Kotxeko giltza giltzari batekin. Galdu dugu Etxarriko Aldapasoro-Malkorramendi auzoan, ostegunean (2014-07-10ean). Topatu duenak 948 46 06 14 telefonora hots egin dezala.

Ikastaroak

AES. "Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Inglera elkarriketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, ekaina "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasu; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948-46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketa

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamizka lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura orokorreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrek

Saharaztan boletoen zenbaki sarituak. 1213-2151-2385-0109-3101-1026-3100-3173-0964. Mila esker zuen laguntzagatik.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Aholasa behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/aholasa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpentak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878,

Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Sukaldaritzak - trukea. Informazio gehiago larrezabal@inigoaritz.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikin. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948-56 38 50 (klinikak) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako.

Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigososefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako

Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoen zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezta, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzeko, asteartean Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoa.

JAIOTZAK

- Ekai Madinabeitia Marin, uztailaren 5ean Olaztin.
- Hegoi Lopetegui Garcia, uztailaren 6an Lakuntzan.
- Bruno Arraiza Rodrigues, uztailaren 6an Ihabarren.
- Lur Uria Lobato, uztailaren 11n Olaztin.
- Yousef El Ouafi Karim, uztailaren 12an Altsasun.

EZKONTZA

- Javier Marroyo Monge eta Carmen Maria Morales Fernandez de Roitegi, uztailaren 12an Altsasun.
- Iñaki Lanza Arnedo eta Estibaliz Guerrero Salado, uztailaren 12an Altsasun.

HERIOTZAK

- Maria Gastaminza Lezea, uztailaren 9an Olaztin.
- Maria Teresa Urriza Anso, uztailaren 10ean Arbizun.
- Andres Maria Lakuntza Mendinueta, uztailaren 12an Arbizun.
- Demetrio Igoa Satrustegi, uztailaren 13an Lizarragan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

TXIRRINDULARITZA

ERBITI ALPEETAN: Froome eta Contadorren erorikoek inoiz baino irekiago utzidute Tourra. Eguntan Alpeetan murgildu-

ko dira txirrindulariak eta etapa ikusgarriak espero dira. Imanol Erbitik Valverderendako lan gogorra egin beharko du.

kirola >>



Felix Benjumea, irona

Gasteizko Triatloi Irona osatzeko 10 ordu luze pasa eman zituen

Gasteizko triatloi festa ederra hartu zuen igandean. Gasteizko Triatloia jokatu zen, bi modalitateetan: iron distantzian (3,8 km igerian, 80 km txirrindulan eta 42 km korrikan), eta half distantzian, laburragoan. Guztira 1.600 triatleta baino gehiago lehiatu ziren bi probatan Iron proba luze eta gogorrean Alejandro Santamaria (8:28:58) eta Brooke Brown (9:51:01) nagusitu ziren.

Sakana Triatloi Taldeko Felix

Benjumea Motino altsasuarra iron proban lehiatu zen. Proba luze, gogor eta izugarria osatzeko 10 ordu eta 40 minutu pasa behar izan zituen (10:40:59) eta bere kategoriako, 35-39 urte arteko 64.a izan zen. Zorionak altsasuarri egingandako lan gogorrarengatik.

Bestalde, Pasai Donibaneko I. Triatloian (750 m igerian, 20 km bizikletan eta 5 km korrikan) Aitor Egillaga (1:08:54) eta Renee Romlin (1:16:24) gailendu ziren. Sakana Triatloi Taldeko Carlos Manero 106.a izan zen (1:30:30).

Pilota

San Migel Txapelketa finalerdietan

Olaztiko Sutegi klubak eta San Migel elkarteak antolatutako 43. San Migel Pilota Txapelketan finalerdiak jokatu dira asteburu honetan Olaztiko pilotalekuan. Bestalde, kategoria txikiko Sutegi-San Migel Pilota Txapelketako finalerdiak jokatu dira baita ere asteburuan. Kasu honetan goizez jokatu dira partidak. Beraz, mugimendua izanen da frontoian.

Asteburu honetako finalerdien ondoren, Olaztiko Santa Ana festetan jokatu dira final handiak.

Helduen finalerdiak

Ostiralean, 21:00etan

2.maila (lau t'erdian): Pablo-Beñat / Besga-Borrega

1.maila: Joseba-Unai / Javi-Aies
22 urtez azpikoa: Azketa-Atxa / Ansa-Alduntzin

Larunbatean, 18:00etan

3.maila (lau t'erdian): Montesi-nos-Koldo / Xapa-Maio

1.maila: Etxague-Lopetegi / Barban-Aritz

Txikien finalerdiak

Larunbatean, 9:30ean

Txikiak: Barandiaran-Ormazabal (Zegama) / Nicolas-Canceco (Errioxa)

Umeak: Irribarria-Zubizarreta (Lazkao) / Elola-Iztueta (Tolosa)

Kimuak: Igua-Etxague (Zizur) / Del Campo-Diaz de Gereñu (Aramaio)

Haurrak 2: Garaiburu-Lezea (Tolosa) / Etxeberria-Elola (Tolosa)

Haurrak 1: Ruiz de Laramendi-Gelbentzu (Lazkao) / Olaetxea-Apezetxea (Arbizu)

Kadeteak 2: Iriondo-Aiesta (Laudio) / Etxeberria-Arrieta (Lizarra)

Igandean, 9:30ean

Txikiak: Peralta-Bernalte (Elorrio) / Apaolaza-Cocera (Lakuntza)

Umeak: Garrido-Goena (Lazkao) / Iskander-Faben (Atxondo)

Kimuak: Irañeta-Alzerreka (Elorrio) / Jorge-Peso (Errioxa)

Haurrak 2: Arruabarrena-Goikoetxea (Tolosa) / Urteaga-Maioz (Idiazabal)

Haurrak 1: Murua-Oteiza (Arrasate) / Oleguenaga-Duendukoetxea (Orozko)

Kadeteak 2: Erauntzetamurgil-Plazaola (Tolosa) / Sagasta-Azkarragaurizar (Elorrio)

Kadeteak 1: Zubeldia-Zubeldia (Amezketak) / Elola-Jauregi (Tolosa)

Gazteak: Mediavilla-Diez (Errioxa) / Egiguren-Eskudero (Amezketak)

Triatloia

Sakanako XIII. Haur Triatloia, bihar

Urdiaingo igerilekuetan jokatuko da, 10:30etik aurrera, larunbatearekin

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, hainbat entitateen laguntzarekin-Sakanako Triatloi Taldea, Urdiaingo Aitziber elkarte, Urdiaingo Udala eta Nafarroako Triatloi Federazioa-Sakanako XIII. Haur Triatloia antolatu du biharko, garilaren 19an, larunbatean, Urdiaingo igerilekuetan. Goizeko 10:30etik aurrera, triatloi proba politaz gozatzeko aukera izango da Urrizti eta San Pedro paraje ederretan. Aipatu probak Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak dira.

120 triatleta pasa

Ondoko kategoriendako probak jokatu dira: aurre-benjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak, kadeteak eta juniorrak. Bertan parte hartzeko aurretik izena emana beharra zegoen www.navarratriatlon.com web gunean eta atzo, ostegunean, bukatu zen epea. Erredakzioa ixterakoan 120 triatleta zeuden izena emanda. Nolanahi ere, informaziorako Mankeko Kirol Zerbitzura hots egin daiteke (948 464 866 telefonoa). Aurreko urtean 111 triatletek hartu zuten parte, horietatik 25 sakanadar. Tartean izanen dira Udako Triatloi Campusean dabiltzan sakandarrak.



Aurreko urteko Sakanako Haur Triatloia.

Igeriketa probak Urdiaingo igerilekuan jokatu dira, eta bizikleta probarako zirkuitu ederra prestatu dute Urdiaingo igerilekuetako bidetik abiatu eta Sarabe paraje barna. Korrika egiteko ere zirkuitua antolatu dute igerilekuetatik gertu. Triatletek derri gorrezkoa izanen dute kaskoa eta mendiko bizikleta erabiltzea. Aipatzekoa da probak irauten duen bitartean partaideek ezingo dutela kanpoko laguntzarik jaso. Proba gauzatzen den bitartean ibilbidea zaindua, markatua eta trafikoari itxita egonen da.

Proba bukatzerakoan triatletak Urdiaingo igerilekuetan dutxatu ahalko dira eta ondoren triatleta guztiei ogitartekoa eta zukua banatuko zaie.

Proben distantziak

Aurre-benjaminak (06-09): 10:30ean (12,5 m igeri, 1 km txirrindula, 200 m korrika)

Benjaminak (05-04): 10:45ean (54 m igeri, 1,5 km txirrindula, 300 m korrika)

Kimuak (03-02): 11:20ean (112 m igeri, 3 km txirrindula, 500 m korrika)

Haurrak (01-00): 11:40ean (224 m igeri, 6 km txirrindula, 1 km korrika)

Kadeteak (99-97): 12:40ean (336 m igeri, 9 km txirrindula, 2 km korrika)

Juniorrak (95-96): 12:00ean (336 m igeri, 9 km txirrindula, 2 km korrika)

Partaideak



Xabier Borrega Arnedo, Oihane Lakuntza Zelaia, Hegoi Lakuntza Zelaia, Unai Villalobos Hernaz, Ander Villalobos Hernaz, Oier Berastegi Fernandez de Garaialde y Lazkao, Javier Diaz Celaya, Ane Gil Aldasoro, Maitane Anton Elizalde, Eider Tiscar Lopez, Ekain Alegre Gil, Aritz Oiarbide Erdozia, Iker Mintegi Claver, Eukene Perez Aristizabal, Ibai Perez Aristizabal, Mikel Izarra Perez de Villareal, Eneko Diaz De Garaio Korres, Alain Razkin Andueza, Gorka Diaz Diego eta Ainhoa Etxaiz San Roman.

Etorkizuneko 20 triatleta

Udako Triatloi Campusa martxan da

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Sakana Triatloi Taldearen eta Atabo S.L.-ren laguntzarekin, 8 eta 16 urte bitarteko neska-mutilendako triatloi campusa antolatu du. Campusa astelehenean hasi zen eta uztailearen 25era bitartean, 20 neska-mutiko murgilduko dira igeriketa, txirrindularitza eta korrika biltzen dituen

triatloian. Campusa Altsasuko Zelandi kiroldegian eta Dantzalekun gauzatzen ari da, goizeko 11:00etatik 13:00etara.

Sakana Triatloi Taldeko Aitor Mozo eta Urko Berdud dira triatloi campuseko begiraleak. Jokoen bidez, atletismoa, igeriketa eta txirrindularitza kirolen teoria eta praktika landuko dituzte. Mankeko teknikari Amaia Gerrikagoi-

tia kontentua dago campusak izandako erantzunarekin. "Partaide batzuk beste urtetan aritu izan dira, baina beste asko berriak dira. 20 neska-mutikok eman dute izena campusean eta pozik gaude" dio teknikariak.

Triatloi campusean dabiltzan partaideetako asko bihar Urdiaingo jokatuko den XIII. Sakanako Haur Triatloian arituko dira.

Mendi lasterketak



Joxeja Maiza, Trikuatrileko helmugan.

Maiza, Goierriko 2 Haundietan handi

Etxarriarra 6.a sailkatu zen 88 km eta 6.000 metroko desnibel positiboan zuten proban. Ehunmiletan (168 km, 11.000 d+), Patxi Rodrigex 117.a sailkatu zen

Ehunmilak ultratraila (168 km, 11.000 m desnibel+) eta G2 Handiak ultratraila (88 km, 6.000 m desnibel+) jokatu dira asteburuan Beasainen. Lehen proban izena eman zuten 295 korrikalariak Txindoki, Ganbo, Aizkorri, Erlo, Izaspi eta Ernio gainditu zituzten, eta Goierriko 2 Haundietan aritu ziren 362 ek Larraitz eta Txindoki.

Orellana Ehunmiletan

Ekainaren erdialdean Hiru Haundiak (100 km, 5.075 metroko desnibel positiboan) ultratraila irabazi zuen Javi Domingez gasteiztarra izan zen Ehunmilak ultratraila txapelketa (23:29:10). Silvia Trigueros izan zen lehendabiziko emakumea (28:48:23). Patxi Rodrigex Orellana altsasuarrak lan ona egin zuen

eta 117. postuan heldu zen helmugara (44:11:04). 150 korrikalarik lortu zuten ultratraila osatzea eta 121 erretiratu behar izan ziren. Patxi Rubio uhartearrak Elosua pasa eta gero utzi behar izan zuen proba.

Maiza, Salinas eta Lacalle

240 korrikalarik lortu zuten Goierriko 2 Handiak despeditzea eta 100 erretiratu egin behar izan ziren. Pedro Etxeberria (10:41:29) eta Aitziber Osinalde (13:25:09) izan ziren txapelak.

Joxeja Maizak sekulako proba burutu zuen eta 6.a sailkatu zen (11:58:05). Denboraldi bikaina burutzen ari da etxarriarra. Aitor Salinas etxarriarrak ere lan ona egin zuen. 105.a iritsi zen helmugara (16:45:13). 108. postuan sartuz Inaki Lacalle olaztiarra (16:54:32). Tamalez, Aritz Munarrirek eta Sergio Goñik Txindokin utzi behar izan zuten proba.

Erremontea

Puntako erremontistak Irurtzunen

Ezkurra II.a-San Migel / Uterga-Endika partida jokatu da bihar, 20:00etan

Irurtzongo festek ekitaldi berezia ekarriko dute bihar, larunbatean. 20:00etan abiatuko da Nafarroako Foru Komunitateko Erremonte Torneoa-Magna 2014 Sari Handia. Torneoa zabalduko duen partida ikusgarria izango da. Koteto Ezkurraren iloba den Josetxo Ezkurrak San Migelekin osatuko du bikoa, Utergaren eta Endikaren kontra jokatuko. Aurretik, afizionatuen mailako pilota partida jokatu da. Txapelketan hasieran final laurdenetako ligaxka jokatu da. Puntuazio sistema ere berezia izanen da. Partida bakoitzeko irabazleak 4 puntu lortuko ditu eta galtzaileak, lortutako puntu araberako puntuak. Ondoren, finalerdien txanda helduko da, bukaeran, finala. Erremontez gozatzeko aukera eskaintzen du, bada, Irurtzunek.



Josetxo Ezkurra, Ezkurra II.a.

Arku jaurtiketa

Iriarte, Espainiako txapelketa

Uztailaren 5ean Espainiako 3D Txapelketa jokatu zen, Asturiasko Los Vallesen. Long Bow modalitatean Nafarroa ordezkatzeko zuten Hiriberriko Jose Luis Iriarte bikain aritu zen eta Espainiako Txapelketa irabazi zuen, azken dueluan Marc Estragues katalana

menpean hartu eta gero.

Europara

Espainiako Arku Jaurtiketako Federazioak irailaren bukaeran Estonian jokatu diren Europako 3D txapelketarako aukeratutako artean Jose Luis Iriarte dago.



Jose Luis Iriarte, lanean. NAFARROAKO ARKU JAURTIKETA FEDERAZIOA.

Txirrindularitza

Txirrindulariak Iturmendin

Eskolako kategoriako lasterketa jokatu da bihar, larunbatean, 17:00etan

Bihar, larunbatean, 17:00etan eta Burunda Txirrindularitza Klubak antolatuta eskolen txirrindularitza lasterketa jokatu da festetan murgildua dagoen Iturmendin. Jakina, Burunda eta Aralar Txirrindularitza Klub sakandarreko gaz-

tetxoek igoko dira bizikletara.

Antolakuntzak 1,5 km-ko zirkuitua prestatu du. Promesek itzuli bat eman beharko diote, hasiberrien lehen urtekoek itzuli bat, hasiberrien bigarren urtekoek 2 itzuli, kimuen lehen urtekoek 3 itzuli, kimuen bigarren urtekoek 4 itzuli, haurren lehen urtekoek 8 itzuli eta haurren bigarren urtekoek 10 itzuli.

Aizkora

Binakakoa ezin jantzi

Nafarroako Bikotekako Aizkora Txapelketan Rekondo eta Erasun gailendu zitzaizkien Nazabali eta Ruben Saralegiri

Aurreko urteko Nafarroako Binakako Txapelketan Floren Nazabalek Ander Erasunekin osatu zuen bikoa. Aizkorakada batzuen alde eskasarengatik galdu zuten txapela, Donato Larretxeak eta Jon Rekondok jantzi zutena. Bada, aurten Ruben Saralegirekin aritzea egokitu zaio etxarriarrari eta bikoak ezin izan du txapela jantzi: Jon Rekondok eta Ander Erasunek irabazi diete, alde nabarmenarekin, gainera. Binakako txapela oso garestia da Etxarriko txapelak handiarendako.

Nafarroako Binakako Txapela jantzeko 3 bikote lehiatu ziren Iruñeko Foru Plazan: Jon Rekondo-Ander Erasun, Floren Nazabal-Ruben Saralegi eta Donato Larretxea-Juanjo Lopez. Eguzkiak, behingoz, sanferminetako herri kirol jaialdian egon nahi izan zuen eta aizkolariek gogotsu ekin zioten lanari: sei kanaerdiko eta sei 60 ontzako erdibitzeko lana zuten aurretik.



Nazabal eta Saralegi lanean. NHKF

Jon Rekondo eta Ander Erasun izan ziren azkarrenak (22:42.35), alde handiarekin. 3 minutuko aldea atera zuten Floren Nazabali eta Ruben Saralegiri (24:43.59). Donato Larretxea eta Juanjo Lopez izan ziren hirugarrenak (26:08.34).

Trontza

Kadeteen trontza txapela ez da Sakanara etorri

Andra Mariko Xabier Basabe eta Adrian Joao Nafarroako txapelak izan ziren

Ostiralean Nafarroako Kadete Mailako Trontza Txapelketa jokatu zen sanferminetan. Eneko Irigoien eta Andoni Galarregi izan ziren txapelak (4:57). Minutu pasako aldea atera zuten Andra Mari ikastolako Xabier Basaberi eta Adrian Joaori (6:13). Antton Irigoien eta Iker Aleman izan ziren hirugarrenak (7:34) eta Asier Jaka eta Joseba Galartza laugarrenak (8:03).



Goian Basabe eta Joao, eta behean Jaka eta Galartza. NAF. HERRI KIROL FEDERAZIOA

Mendia



Mendizaleak Bargainera

Igandean LIV. Bargagaingo igoera antolatu du Altsasuko Mendigoizaleak Klubak

Altsasuko Mendigoizaleak taldeak igandean LIV. Bargagaingo Igoera antolatu du. Klubak, mendizaleak bertarajateko gonbita egin du, igandean, aldi berean, XLIV. Mendi finalista izango baita.

Igandean, goizeko 9:00etan jaurtikodutesuziria, Bargainera abiatzeko. 9:30ean hamarretako egingo dute gazteluan, eta behin Bargainera igota, goizeko 11:00etan meza izanen da. Ondoren, eguerdian, auzatean bilduko dira finalista guztiak eta mendi ibilbidera batu gozatzeko. Denboraldian egindako mendi igoeren erreposoa egingo dute mendizaleek, eta oroi-garriak jasoko dituzte. Jakina, Altsasuko erromeria guztietan bezala, ez da zortzikorik faltako. 13:30ean eta txoko guztiak garbi-garbi utzi ondoren, Altsasura jaitziko dira.

Mendia-abentura

Altsasu Xtrem, animatu biharko abenturara!

Larunbatean egun osoko abentura probak antolatu ditu Altsasuko Gazte Asanbladak

Altsasuko Gazte Asanbladak eskaintza berezia dakar larunbaterako: Altsasu Xtrem abentura proba berezia.

Altsasu Xtremen altxorra bilatzera jokatu dute parte hartzaileek, taldeka. Altsasuko herri gunean eta basoetan. Indarra, trebetasuna, orientazioa, elkartasuna... hori guztia landu beharko dute ezarriko zaizkien probak gaintitu ahal izateko. Horrela iritsiko baitira altxorrera edo sari potolora.

Altsasu Xtreme larunbatean hasiko da, goizeko 11:00etan, Altsasuko Foru Plazan. Proba egun guztian barna gauzatuko da eta gauean afaria antolatu dute gaztetxean. Afalostean egunak eman duenaren balorazioa egingen da eta gonbidatu bereziak izanen dira. "Abenturazaleendako, ameslariendako, sor-

tzaileendako... finean, ongi pasatu nahi duten guztiondako prestatu dugu Altsasu Xtreme" dio Altsasuko Gazte Asanbladak. Abenturan parte hartzera animatu dituzte sakandarrak.

Izena emateko

16 urtetik gorakoek eman dezakete izena, Gaztetxeko zerrendan edo altsasuxtreme@gmail.com e-postan. Gastuei aurre egiteko, parte hartzaile bakoitzak 5 euro ordaindu beharko ditu egunean bertan.

Parte hartzeko materiala

Mendian ibiltzeko arropa, motxila, oinetako aproposak, urez betetako kantinplora eta eguraldiari aurre egiteko beharrezkoak direnak. Horretaz gain, mugikorrak, eta argazki edo bideo kamerak beharrezkoak dira. Gainontzekoa, bazkaria eta afaria barne, antolakuntzak jarriko du.



Waterpolo



Aurreko urtean Etxarri Aranatzan burutu zen waterpolo jardunaldia.

Waterpolo jardunaldia asteartera atzeratu dute

Asteartean burutuko da, 17:00etan, Altsasuko Dantzalekuko igerilekuan

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak eta Altsasuko Udalak bihar Altsasuko Dantzaleku igerilekuan antolatutako waterpolo jardunaldia aste bete zateratzea erabaki dute. "Asteartean burutuko da, uztailearen 22an, uraren tenperatura hobeto izanen delakoan eta eguraldia ere bai" adierazi du Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak.

Horrela, asteartean, garilaren 22an, 17:00etan, burutuko da waterpolo jardunaldia, Altsasuko Dantzaleku igerilekuan.

Kimuetatik jubenetara

Kimuek (2004, 2005), haurrek (2002, 2003) eta kadete-jubenilek (1997-2001) parte hartu ahalko dute waterpolo jardunaldian. Horretarako izena eman beharko da Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com). Izena ematen dutenen kopuruaren arabera autobusa antolatuko da.

Waterpolo jardunaldian, herri desberdinetako eta adin desberdinetako neska-mutikoak nahasi egingo dira taldeak sortzerakoa, ahalik eta talde orekatuenak sortuz. Eta waterpoloarekin gozatu ongi pasatzea izango da jardunaldiaren helburua.

Futbola

Futbol campusa, aurten, Uharten

15 neska-mutiko parte hartzen ari dira lehen txandan, Peio Goikoetxea eta Jokin Loboren aginduetara

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak futbol campusa antolatzen du udan. Udako oporretan futboleko sakontzeko aukera ematen die neska-mutikoek urtero arrakastaz gauzatzen den futbol campusak. Astelehen hasi zen lanean lehen txanda. Aurten Uharte Arakilen burutzen ari da. "Aurreko urtean Altsasun izan zen, eta aurten Arakil aldean egin nahi genuen, bertako jendea gehiago animatzeko" adierazi du Mank-eko teknikari Amaia Gerrikagoitiak.



Oier Gastesi, Jose Luis Martin, Angel Bergara, Jon Navarro, Iker Ramos, Ayrton Santander, Gaizka Martin, Daniel Vincent Arguelles, Joanes Mikeo, Markel Cestau, Josu Serrano, Andoni Razkin, Nerea Arellano, Maider Granizo eta Unai Irigoien.

Goikoetxea eta Lobo

Peio Goikoetxea eta Jokin Lobo dira futbol campuseko monitorea. Futboleko teknika eta praktika uztartzen dituzte. Lehen txanda honetan 10-12 urte bitarteko 15 gaztetxo ari dira haien esanak jarraitzen, 9:30etik 14:00etara. Polita da berde-berde dagoen Uharte Arakilgo futbol zelaietan guztiak lanean ikustea. Futboleko aritzeaz gain, Zamartze aldera txangoren bat egiteko asmoa dute, eta, eguraldiak laguntzen badu, igerilekuan freskatuko dira.

Ondarria industrialdea z/g
ALTSASU
948 562 829
Faxa: 948 563 002
unamuno@piensosunamuno.com

Nafarroako berezko txistorrak izen bat du
Txistor ekologikoa
Uztar industrialdea - Rf. - Faxa: 948 460 499 - 41003 21



Nonerabili

CLINKER

OLAZTI

Menuarekin kafea eta kopa doan.

SORKUNDE HARATEGIA

ALTSASU

50 €ko erosketan etxeko produktoa doan

BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero %50eko deskontua.

IKER KIROLAK

ALTSASU

50 €tik gorako erosketan, %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

URGAIN ALBAITARITZA ZENTROA

ETXARRI ARANATZ

% 20ko deskontua kontsultan.

BASOMUTUR

ALTSASU

Menuan eta kartan %6ko deskontua.

BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa doakoa..

IÑAKI OINETAKOAK

ETXARRI ARANATZ

50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

GERTU SAKANA

ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu balea hurrengo erosketarako.

AINHOA ESTETIKA

IRURTZUN

2 produktu erosita, % 10eko deskontua.



Arakil argazkitan

Udalak ibarrari buruzko argazki lehiaketa antolatu du

Arakil ibarra protagonista diren argazkiak aurkeztu daitezke lehiaketara, bisailetakote batean: jaiak eta tradizioak sailean edo ondarea eta paisaiak sailean. Lanak hilaren 24ko 13:00ak arte aurkeztu daitezke. Sail bakoitzeko argazki onenaren egileak 250 euro irabaziko ditu. Herri bozketa bidez aukeratutakoaren egilearendako 100 euro izanen dira. Argazki bakarrak ezin izanen ditu bi sari jaso.

Lehiaketara aurkezten diren languztiak Arakilgo Egunean ikusgai izanen dira, Urritzolako elkarrean. Ondoren, udaletxeko batzar gelan izanen dira, agorriaren 8ra arte. Egun horretan, Arakilgo Udalaren Kultura Sailak sare sozialen bitartez herri bozketa bidez aukeratutako argazki irabazlea zein den jakinaraziko du. Horrekin batera, epai-mahaiak sail bakoitzetik aukeratutako 10 argazki finalistak zeintzuk diren jakinaraziko ditu. 20 argazki horien erakusketa epea

11tik 13ra izanen da eta agorriaren 14an jakinaraziko du Arakilgo Udalak zeintzuk diren bi argazki irabazleak.

Lehiaketak irauten duen bitartean hainbat modutan zabalduko ditu argazkiak, parte hartzea sustatzeko. Bestalde, 20 argazki finalistak gerora erabiltzeko eskubide ez eskusiboa gordeko du udalak.

Parte-hartzaileak

Bakoitzak sail bakoitzean hiruna argazki aurkez ditzake, udaletxean edo arakilkultura@gmail.com e-posta helbidera bidaliz. Egileak izen-abizenak, nortasun agiria, helbidea, telefonoa eta e-posta helbidea eman beharko ditu. Gainera, argazki bakoitza zein sailetara eta zein izenbururekin aurkezten duen zehaztu beharko du. Aldi berean, argazkiaren deskribapena eta kokalekua gehitu beharko ditu. Lanak .Jpg formatuan aurkeztu beharko dira, 200 pppko erresoluzioan eta argazkiaren alde-rik handienean 30 cm-ko tamaina izan beharko du.



Enneco ezagutu gabe joan da Basterretxea

Euskal artearen izen handienetakoa zenak Nafarroako historia eta imaginario kolektiboa jasoko dituen eskultura bat eman zuen Etxarri Aranazko parkerako

Bermeon sortu zen Nestor Basterretxea duela 90 urte eta Hondarribiko bere etxean hil zen larunbatean. Gaur, 20:00etan, azken agurra jasoko du Donostiako Zorroagan eginen den ekitaldi zibilean. Hara joanen diren artean Etxarri Aranazko Udalaren ordezkari bat izanen da. Aurretik, dolu-eskutitza bidali diote Etxarri Aranazko Udaletik familiari.

Basterretxea duela urte bat

egon zen Etxarri Aranazten (2013-07-02), Nafarroako artearen ordezkari bat izanen da. Aurretik, dolu-eskutitza bidali diote Etxarri Aranazko Udalaren ordezkari bat izanen da. Aurretik, dolu-eskutitza bidali diote Etxarri Aranazko Udaletik familiari.

Nafarroa Oinezekin

Basterretxea lotura estua izan du Nafarroako ikastolen festarekin. Urtez urte Artea Oinez erakusketan, parte hartu du. Iñigo Aritzak ikastolak 2005ean antolatu zuen Nafarroa Oinez. Urte hartako otsailaren 18an Artea Oinez 05 erakusketa aurkeztu zuten

Iruñeko gotorlekuko arma aretoan. Burundako ikastolako arduradunekin batera, han zen Basterretxea ere. Izan ere, bai aurkezpena baita erakusketa bera ere artista omentzeko ekitaldi bihurtu zituen Iñigo Aritzak ikastolak. Hala eskertu nahi izan zioten urtetan Nafarroa Oinez eskainitako baldintzarik gabeko laguntza.

Eskultura

Eskultoreak eta Nafarroa Bizirik fundazioak lastailaren 4an aurkeztu zuten Iruñean egitasmorako egin zuen Enneco eskultura. 5 metroko altuera izanen duen altzairuzko obra da. Lauki luze horizontal batek eta xafila borobildu batzuk osatzen dute. Eskultorearen esanetan, artelanak harresi eta bihurtuak irudikatzen ditu. Harresia, Estatuaren zapalkuntza, errepresio eta sufrimenduaren erreferentzia eginez. Bihurtuak, Nafarroa Bizirik irauteko gaitasuna eta borondatea duelako. Horrela, zurruntasuna eta malgutasuna kontrajarri ditu Eneko Aritzaren erreginafarraren izena daraman artelanean.

Basterretxeak aurkezpenean esan zuenez, eskulturak Nafarroaren "bizi-goraldiaren historia mingarria" erreproduzitzen du. "Artelan bat ez da beti balio estetikoekin egindako aurrezterketa baten emaitza; batzuetan gai batek lanaren estetika eramaten zaitu eta hau kasu horietako bat da". Eskultoreak Nafarroarekiko duen maitasunak motibatu zuela nabarmendu zuen.

Basterretxeak Nafarroa Bizirik fundazioari eman zion eskultura. Parkearen sarreran kokatuko da obra eta interpretazio zentroaren ikurra izanen da. Enneco, haritzaren memoria proiektuaren alde Nafarroa Bizirik Fundazioari 2000 edota 6000 euroko dohaintza egiten diotenean, eskulturaren erreproduktzio bana jasoko dute, Basterretxeak sinatuta, eta agiri legal guztietan.



bazterretik

Jose Luis Asensio

Haurrendako komikiak

Askotan saiatu naiz komikiak adierazpen modu bat besterik ez direla azaltzen, komikiak ez direla berez haurrei zuzendutako aldizkaritxoak. Baina adierazpen modu aberatsa izanik, baditugu haurrei zuzendutako komikiak ere, noski, adin guztietarako eta ugari. Berez beti hitz egin izan dut helduendako komikiei buruz zutabe honetan, baina uda garaia datorrela eta haurrak denbora asko izango dutela, hona gomendio batzuk.

Komikietara hurbiltzeko lehenengo urratsa, normalean, marrazki-

dun ipuinak dira. Haurrak txikiak direnean ez dute ulertzen orrialde berdinean bineta ezberdinak egotea, ez dute ulertzen protagonista orrialde berdinean bi aldiz agertzea. Pertsona ezberdinak bezala uler ditzakete eta horregatik, haur txikiendako liburuetan, marrazki bakarria egoten da orrialde bakoitzeko. Adibide bezala "Buenas noches, gorila" izandaiteke 0-4 urteko koei zuzenduta.

Zertxobait landuago baina antzeko ideiarekin, "Tom y el pájaro" komikia dugu. Jada binetaren bat gehiago ager daiteke orrialde bakoitzean, baina marrazkiak mugimendu askorik gabe eta ideia abstraktuak erakutsi gabe agertzen dira.

5-8 urteko haurrentzat zuzenduriko ilustrazioak.

Bost urte baino helduagoko haurrendako Jacques Duquennoy-ren mamuen ipuinak ditugu. Liburu ugari idatzi ditu mamutxoak protagonista direlarik: "Los fantasmas en el sótano", "Los fantasmas en el lago Ness" edo "Los fantasmas y la bruja" adibidez. Ekintzak deskribatzen dira marrazkietan, ez dira irudi estatikoak, marrazkiak interpretatu egin behar dira eta orrialde bakoitzeko akzio sekuentzia ezberdinak ditugu, non irakurleak akzioaren jarraitutasuna landu behar duen. Beti ere humorez, haurrei mamuen irudiaren eta komediaren nahasketa asko gus-

tatzen baitzaie. Sei urtetatik aurrera ere gomendatuta.

Helduagoentzako jada, "¿A qué sabe la luna?" liburua dugu. Bertan animalien elkarlana deskribatzen da eta haurren kolaborazioa eta solidaritatea lantzeko oso polita da.

Bukatzeko, Jeff Smith-en "Ratoncito se viste" liburuxka ere gomendatu nahiko nuke. Jeff Smith-i buruz aurrekoan hitz egin ondoren, -bere BONE kontakizunari buruz hain zuzen ere-, oraingoan haurrendako kontakizuna dugu "Ratoncito se viste". Bertan haurrei nola jantzi azaltzen diesagutxo txiki batek, pausoz pauso arropa bakoitza nola jarri behar den, modu



ordenatu batez. Liburuak, estruktura konplexuagoa du, baina hala ere azalpenak emateko modua sinple eta erraza da, haurrek ulertzeko modukoa. Liburuaren bukaerak ziur ustekabe harrapatuko zaituela.

Izaroko teila, made in Altsasu

Txuspo Poyok diseinatu du Bermeoko Madalen festetako Izaroko uhartean jaurtikiko den teila

Bermeo Madalen festetan murgilduko da. Festa horiek Izaroko uhartea dute protagonista. Bermiotarrek Izaroeuren jabetza dela aldarrikatzen dute Madalen egunean, garilaren 22an, teila bat irla parean, itsasoan botaz. Bada, aurtengo teila berezia izanen da, Txuspo Poyo artista altsasuarrak diseinatu baitu.

Txuspo Poyo irlaren inguruan *Izaro proiektua* egiten ari da. Haren barruan diseinatu du asteartean itsasora jaurtikiko duten teila, artista altsasuarrak azaldu duenez "teila garrantzi berezia baitu Bermeoko irla horren historian". Bermeoko herriari dohaintzan eman dio teila. Bere esanetan, Madalen egunean teila "ospatzeko eta aldarrikatzeko ekintza bat da. Poetiko bezala izendatu ahal dugun ekintza bat da; erreal, sinbolikoa eta irudizkoa batzen dituen ekintza, hau da, irla, itsasoa eta herritarrek. Teila transformazio prozesu entropiko bat aurkezten du, hiru herrietako (Elantxobe, Mundaka, Bermeo) itsasontzien hondakinen arteko transformazio prozesua, hain zuzen ere" azpimarratu du Poyok. Artistak gaineratu duenez, "elkarriketa ekintza batean, teila 3 aldean galdeketa da, forma bakar batean. Teila honek teilape batean 3 herrien arteko elkarte adierazten du, isla bakar baten historiaren eta kondairaren artean, bakoitzak bere nortasuna duela ahaztu gabe".

Teilaren istorioa

Izaro Bermeo eta Mundaka herrien artean dago. Bermeokoa da, baina irlaren jabetzaren inguruan gatazka handiak izan dituzte historian barna Bermeok eta Mundakak, eta baita Elantxobek ere. Azken horrek uko egin zion jabetzari. Dirudienez, jabetza estropada batean erabaki zen.

Gurutze-bide euskalduna Iturmendin

XVIII. mende hasierako gurutze-bidean euskarazko pasoak eta haiek egitea agindu zutenen izen-abizenak daude idatziak

Iturmendi eta Aritzaga ermita artean zegoen gurutze-bidea 1.712koa da, "goiztiarra" Ezpilleta elkarteko Mikel Markotegi Ijurkoren esanetan. Baina Iturmendiko gurutze-bidearen berezitasuna da gurutzeak euskaraz idatziak daudela. Gurutzearen alde batean Jesusen pasioari dagokion estazioa dago. Eta beste aldean gurutzea egiteagatik ordaindu zuten iturmendiarraren izen-abizenak daude idatziak. Berezitasun horiek guztiengatik Iturmendiko gurutze-bidea ziurrenik euskaraz idatzitako lehena izan zen.

Harrizko gurutzeak nahiko hondatuak daudenez, idatzitako aztertzeko nahiko lan izan zuten Markotegik berak eta Nicolas Arbizu Gabirondok, Iturmendiko historian aditua denak. Horretarako argi txuri oso indartsu batekin aritu ziren. Idazkera alderatzeko aukera ere eman die Pilara ermitako ate gaineko idatziak. Garai berekoa da eta hobe kontserbatua dago.

Lau gurutzetako idatziak azaleratu dituzte, baina ez guztiz. Arbizuk XVIII. mende hasierako itur-



Idatziak	Alde batean	Bestean
V.	C..... gundu (ce?)n(e?)an	Antonyo de goyechea...
VII.	Gurucearequin bigarreanean erori	Nicolas de Zufiaurrec eguin arazia
VIII.	Jerusalengo alabac consoladu zioten	Pedzo juaquin de mendia año 1712
XI.	Jesuchristo gure jua(a?) (da?)go guruce(an?) ylzez josiri(c)	++m+guel de [g]oicoe[c]hea Y echeuerr[?]++g+

mendiarren zerrenda begiratu behar du eta horrela osatzea falta diren izen-abizenak zein diren jakitea espero dute. Esaterako, badaki Joaquin de Mendia Iturmendira ezkondu zen urdiaindar bat zela. Arbizuren susmoa da Curtederia

etxeko Jofeph de Galartzarekin lotura duela gurutze-bideko euskarazko idatziak, bere etxeko armarrarian ere euskarazko idatzi bat baitago. "Ia 40 urtez Iturmendiko apaiza izan zen eta euskararekiko interesa zuela dirudi".

Gurutze-bideez

Berez zegoen bakarra Lur Santuan zegoen, bekatuak barkatzen zituen bakarra zen. XVII. mende akaberan, 1.688an, Aita Saindu batek frantziskotarrei euren elizetan gurutze-bideak errepikatze aukera eman zien. Kontzesio hori jaso ondoren frantziskotarrek gurutze-bideak egiteko emate gehiago egin zituen. XVII. mende akaberan eta XVIII. mendeen hasieran gurutze-bideen gorakada izan zen.

Dagokion erromatar zenbakia idatzia duen harrizko gurutzeak dira bidea osatzen dutenak. Normalean azkenak armas cristi delakoak edo Kristoren pasioan sartzen diren elementuak zituen zizelkatuta (iltzeak, eskailera, kurrika, mailua, zigorra...)

Gurutze-bideak Sakanan



Lakuntzan badaude gurutzeak. Etxarrin desagertu egin ziren Zugarretako etxeak egitean, baina bakarren bat gelditzen da. Bakaikun kalbarioa gelditzen da. Pabilioiak eta bestelako eraikuntzak egin direnez, Iturmendiko gurutze-bideko gurutzeak Pilara eta Aritzaga ermiten inguruan pilatuak daude. Olatzagutian, hilerrian, kalbarioa gelditzen da, armas cristi eta guzti. Ziordian, berriz, mendebaldeko sarrera egitean kendu zuten gurutze-bidea.

Zatoz eta ezagutu

Dibertsioaren lurraldea

Tri Sarri LAND

Ongi pasa bestetan!

Familia osoarentzako jarduerak: Canopy-a, 1.000 m²ko nabea haurrentzako jolasekin, mendiko ibilbideak,

Pendulu jauzia, BTT pistak, Hegaldiak, helikopteroan, Tibetar zubia, Ostatu eskaintza ikusgarria

Zaldi ibilaldiak

Informazio gehiago:
www.trisarriland.eu
 T. +34 948 928 922
 e-maila: info@trisarriland.es
 Tri Sarri Land, Igantzi, NAFARROA

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 15%	euria: 53%	euria: 87%	euria: 30%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 10%
Min: 16 Max: 29	Min: 16 Max: 23	Min: 13 Max: 19	Min: 12 Max: 20	Min: 12 Max: 23	Min: 13 Max: 26	Min: 14 Max: 28	

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	35.5	10.5	2.8
Etxarri A.	33.8	7.4	6.6
Altsasu	33.5	9	3.5
Aralar	25.8	5.8	19.8
Urbasa	30	10	7.8

: ilargiaren aldia>>

	ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
	19	26	4	10

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Garileko bazkide zozketa

GARILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkariako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinean %10eko deskontu balea eta Armix sukaldean liburua.
2. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkariako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinean %10eko deskontu balea eta Lunitakoak liburua.
3. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkariako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinean %10eko deskontu balea eta Lunitakoak liburua.
4. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkariako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinean %10eko deskontu balea eta Lunitakoak liburua.

>> 11 galdera

Omkar, Joseba Carabia Nuin

Yoga irakaslea. Arbizu

Testua: Larraitx Amadoz Lazkano



Arbizuko ekokanpinean Amari yoga magiko eskola zabaldu du.

1. Noiz hasi zinen Sakanan yogako klaseak ematen?

Uhartre Arakilen hasi nintzen klase arruntekin duela 7 urte, baina aurten, Arbizun eta Etxarrin eman ditut. Dena dela, Irotzen nire eskola txikia daukat eta han ere klaseak ematen ditut.

2. Arbizuko kanpinean egin zenuen inaugurazioa ezta?

Bai, inaugurazio data ekainean izan zen, San Juan suekin batera eta 12 tailer ezberdin egin genituen jendearen aurrean gure lana erakusteko. Nik joga magikoa egin dut, baina ekainean dantza ezberdinak, meditazioa soinuekin, eta 4 kontzertu ezberdin izan genituen. Jende asko gerturatu zen eta oso giro polita izan genuen.

3. Azaldu pixka bat Arbizuko yoga aretoak dauzkan berezitasunak.

Eraikuntza hau bizirik dago, inguruan dauzkagun elementu guztiak naturalak dira, esate baterako, las-toa, egurra, lokatza eta arbela. Teilatua eusten duten 12 zuhaitz dauzkagu eta erdiko borobiletik eguzkiaren argia sartzen da. Paretek metro eta erdi neurten dute, eraikin bioklimatikoa da, eta honen bitartez ez dugu berorik galtzen. Arbizuko kanpinean kokatuta dago eta forma borobila dauka.

4. Zergatik erabaki zenuen yoga irakasle izatea?

Betidanik mugimendu ekologista eta sozialekin harremanetan egon naiz, eta honen ondorioz, aukera ezberdinak frogatu ditut. Nire asmoa beti izan da mundua aldatzearena, eta horregatik bere garaian, soziologia ikastea erabaki nuen. Ideia batek eragin han-

dia izan zuen niregan, aldaketa sozial global bat egin ahal izateko, lehenik eta behin gu ere barrutik aldatu behar gara, eta irizpide horri tinko eutsi diot.

5. Zer eman dizu yogak?

Yoga maila askotan dago, horregatik batzuek ariketa multzo bat egiteko erabiltzen dute, beste batzuek arnasketak lantzeko, eta hori dena aukera bat da. Hala ere, yogaren munduaren barruan aldaketa sakanagoak egiteko tresnak daude eta oso baliagarriak iruditzen zaizkit. Gazte asko bezala, asko edan eta erre nuen, hori zen momentuan dibertitzeko geneukan modua. Gaur egun, esparru bereziak sortzen ditut jendea zoriontsu eta giro onean egon dadin eta edatearena eta erretzearena beste maila batean geratzen da.

6. Zer da yoga magikoa?

Hiru hitz erabiltzen ditut yoga magikoa definitzeko. Bizia, dibertigarria eta sakona. Yoga oso desberdinak daude, batzuk oso lasaiak dira, oso motelak; beste batzuk kirol fisikoa egitekoak dira.

7. Deskribatu eguneroko klase bat.

Klase bat beti mugimenduarekin hasten da. Musika jarri eta dantza librea egiten dugu, beste batzuetan, berriz, koreografiak prestatzen ditut. Geroxeago, yoga klasikoaren munduan sartzen gara eta posturak lantzen ditugu, edota eguzkiaren eta ilargiaren agurrak. Bukatzeko, arnasketak, gorputza aktibatze eta baita erlaxatzeko ere.

8. Ze onura ditu yoga magikoak?

Nik yoga ezin dut alaitasunik gabe ulertu, beti erlazio handia dauka

poztasunarekin. Klaseetara deprimetuta dagoen jendea etortzen da batzuetan eta hiru lau hilabete pasa ondoren, aurpegian irribarrea marraztu egiten zaiela ikusi dut. Bestalde, arazorik gabe datorren jendeak primeran pasatzen du. Indar gehiago lortzen da, malgutasun gehiago.

9. Sakanan arrakasta handia al dauka yogak?

Badakit kiroldegietara jende asko etortzen dela. Nire kasuan, Uharteko eskolan, Etxarriko udalean eta kiroldegietan egon naiz eta jende asko gerturatzen da.

10. Zer nolako prestakuntza jaso duzu yoga munduan aritzeko?

12 urteko prestakuntza egin nuen, koherentzia bilatzen nuen nire buruan eta prozesu pertsonal handia jasan dut gaur egun arte. Barrutik asko aldatu naiz, ikuspuntuak ere ez dira berdinak, gauregunesan dezaket lehen baino pertsona hobe bihurtu naizela. Yogako irakasle irakasle bihurtu naiz eta horretarako, Espainiar estatuko leku desberdinetan aritu naiz lanean. Bestalde, Reikiko maisua naiz, energia mugitzen nahiko ona, arte martzialak ere ikasi ditut, eta tresna hauek guztiak asko balio dute.

11. Noiz hasiko dira yoga klaseak?

Irailtik aurrera, astelehena eta asteazkenetan. Jendearen mailaren arabera 3 talde egingen ditut. Klase arruntak emanen ditut, baina prestakuntzari ere lekua egin nahi diot. Yoga magikoa irakasteko ikastaroa emateko asmoa daukat, Reiki prestakuntza, irakasle interesgarriren bisitak eta musika ikuskizunak (urrian Terry Oldfield).

Zure herriko festetako aplikazioa eskuragarri!

Olaztiko festak

deskargatu jai egitaraua zure mugikorrean

QR irakurgailuarekin alboko kodea irakurri eta zure telefonoan eskuragai izango duzu Olaztiko festen egitaraua.

Bi aukera dituzu: lerroan kontsultatzea (internet konexioarekin), edo Android sistema eragilea duten gailuen kasuan, **OLAZTIKO FESTAK** aplikazioa jaiste eta sarerik gabe kontsultatzea.

Argibide gehiago

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.net